

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

17340 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

I

COVID-19aren eraginez, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia deklaratu zuen martxoaren 11n. Gaixotasuna azkar hedatu zen Estatuan zein nazioartean, eta Europar Batasuneko estatuak larrialdiko neurri koordinatuak hartu zituzten berehala, herritarren osasuna babesteko eta ekonomiaren kolapsoa saihesteko.

Neurri horien helburua da hedapena errazten duten faktoreetan eragitea, eta, pandemiaren bigarren olatuaren ondorioz, luzatzen ari dira. Inpaktu sozial eta ekonomiko bortitza ari dira izaten Europar Batasuneko herrialde guztietan, eta, ondorioz, azkar erreakzionatu behar izan da, eta presako neurri sendoak hartu, aurrekaririk gabeko krisialdi horren eragina apaltzeko eta susperraldi ekonomiko azkarra bultzatzeko, hurrengo hamarkadetako hazkundearen oinarriak ezarri.

Europako Kontseiluak, 2020ko uztailaren 21ean, ikusita une historiko honetan aurrekaririk gabeko ahalegina egin behar zela eta planteamendu berritzaile bat behar zela Europar Batasunean konbergentzia, erresilientzia eta eraldatzea bultzatzeko, irismen handiko neurri sorta bat ezartzea adostu zuen.

Neurri horiei esker, bateratu egin dira 2021-2027ko aldirako urte anitzeko finantza-esparru indartua eta Suspertzerako Europako Bitartekoa («Next Generation EB»), zeinaren bidez 750.000 milioi euro bideratuko baitira, 2018ko prezio konstanteetan.

Suspertzerako Europako Bitarteko horrek 140.000 milioi euro inguru ekarriko dizkio Espainiari, transferentzia eta mailegu bidez, 2021-2026ko aldirako, eta hiru oinarri ditu:

1. Estatu kideek suspertzeko, kalteak konpontzeko eta krisialditik indarberrituta irteteko egiten dituzten ahaleginei laguntzeko tresnak ezartzea.
2. Inbertsio pribatua bultzatzeko eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko neurriak hartzea.
3. Europar Batasunaren funtsezko programak indartzea, krisialditik irakaspenak ateratzeko, merkatu bakarra indartsuagoa eta erresilienteagoa bihurtzeko eta trantsizio bikoitza —ekologikoa eta digitala— bizkortzeko.

Baliabide kopuru hain handia mugitzeak aparteko aukera bat ematen dio gure herrialdeari, 80ko hamarkadan Europako erkidegoetan sartzean edo 90eko hamarkadaren erdian Europako Kohesio Funtza sortzean gertatu ziren eraldatze ekonomikoko prozesuen pareko aukera bat.

Baliabide horiek azkar xurgatuz gero, enpleguaren eta jarduera ekonomikoaren mailak azkarrago leheneratuko dira. Baldintza hori funtsezkoa izango da, halaber, Espainiako eredu ekonomikoa eraldatzeko eta susperraldia berdea, digitala, inklusiboa eta soziala izan dadin.

Egiturazko inbertsioak, transformazioak eta erreformak jarriko dira abian, ekonomiaren eta gizartearen trantsizioa bideratzeko, aurrerantzean klimaren aldetik neutroak, jasangarriak eta zirkularrak izan daitezen, ingurumenak ezarritako mugak errespetatzen eta baliabideak modu efizientean erabil ditzaten. Era berean, Espainia Digitala 2025 agenda hedatuko da, arlo hauek bultzatzeko: konektibitatea eta zibersegurtasuna, Administrazioaren eta ekoizpen-ehunaren digitalizazioa, gizarte osoaren gaitasun digitalak eta adimen artifizialaren eremuko berrikuntza disruptiboa. Gainera, hezkuntza eta lanbide-heziketa, zientzia eta berrikuntza, zainketen ekonomia, osasun-sistema publikoa eta bide-

erakusle diren sektoreen modernizazioa bultzatuko dira, etorkizunean hazkunde jasangarriagoa eta inklusiboagoa lortzeko, ekonomia produktiboagoa eta gizarte kohesionatuagoa izateko eta balio konstituzionalak eta herritar guztien eskubide indibidual eta kolektiboak babestuta aurrera egiteko.

Erronka handiak dira horiek, eta aldi baterako esparru baten barruan egin behar zaie aurre. Horrenbestez, ezinbestekoa da erakunde eta administrazio publikoek esku hartzea eta presako neurriak hartzea, inbertsio-proiektuak eta -programak hautatu, haien jarraipena egin eta haiek ebaluatu eta koordinatzeko gobernantza-eredua ezartze aldera. Era berean, arau-erreforma horizontalak gauzatu behar dira, proiektuak arinago abian jartzeko, prozedurak sinplifikatzeko (Europar Batasuneko araudi-esparruak exijitzen dituen berme eta kontrolei utsita) eta gastu publikoan efizientzia handiagoa erdiesteko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten proiektuei esker, egiturazko erreformak egin ahalko dira datozen urteetan, arau-aldaketen eta inbertsioen bidez, eta, horren ondorioz, ekoizpen-eredua aldatu ahalko da, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoren ekonomia susper dadin. Horrez gain, egitura erresilienteago batera igaro ahalko gara, gure ereduak arrakastaz aurre egin diezaien etorkizunean izan daitezkeen beste krisialdi edo erronka batzuei.

Europako negoziazioaren testuinguruari erreparatuta eta ikusita Europako erakundeek Suspertzerako Europako Bitartekoa dela-eta zer eginkizun dituzten, argi geratu da estatu kideek herrialde-proiektuak gauzatu behar dituztela. Plan horiek garatzeko, agente guztien laguntza beharko da, publiko zein pribatuena; beraz, parte-hartzea eta maila anitzeko gobernantza beharrezkoak izango dira.

Azaldutakoa gorabehera, begi-bistakoa da administrazio publikoak izango direla protagonista planeko proiektuen sustapen, jarraipen eta kontrolean, baita Suspertzerako Europako Bitartekoaren funtsen xurgapen beharrezkoan ere. Europako funts horiek xurgatzea plana arrakastaz egikaritu den adierazgarri izango da, alegia, kasuan kasuko diru-sarrerak aurrekontu nazionalera transferituta. Baina, horrez gain, funtsen xurgapenak benetako herrialde-erronka bat dakarkie inplikaturako agente guztiei; izan ere, Espainiak proiektu hautagarriak diseinatu, garatu eta gauzatu behar ditu, eta ezarritako mugariak eta helburuak lortu, hartara egiturazko eraginak sortzeko eta inbertsioak bideratzeko, herrialdearen eta Europar Batasunaren finantza-interesak babestuta; funtsezko erronka da hori, batez ere inbertsioen zenbatekoa eta inbertsioak egikaritzeko epe laburra kontuan hartuta.

Planak arrakasta izango badu, Espainiako administrazio publikoek (bereziki, Estatuaren Administrazio Orokorrek) funtsezko zeregin arin, efikaz eta efizientea izan behar dute. Gainera, itzulketa-eskaerak eta funtsen xurgapena modu frogagarrian justifikatu ahal izateko beharrezkoak diren kontrol- eta zaintza-lanak egin behar dituzte. Hori dela eta, berrikusi egin behar dira araudian eta kudeaketa publikoko prozedura eta tresnetan dauden oztopoak eta botila-lepoak. Haiek aztertu ondoren, erreformak egin beharko dira, Suspertzerako Europako Bitartekoaren funtsei lotutako proiektuak egikaritzeko erronkari erantzun ahalko dion administrazio moderno eta arina lortze aldera.

Administrazio Publikoak modu arin eta efikazean erantzun behar du, beste batzuetan egin duen bezala, kontrol-betebeharrak murriztu gabe, interes orokorra zaindiz. Horretarako, modernizazio-prozesu bati ekin behar zaio, plana egikaritzeko eta funtsak hobeto kudeatzeko behar diren tresnak izan ditzan, sektore publikoa eta pribatua kontuan izanda.

II

I. tituluaren, xedapen orokorrei buruzkoan, lehenik eta behin, kudeaketa-printzipioen azalpena jasotzen da. Printzipio horiek administrazio publikoen jarduketa, funtzionamendu eta esku-hartzearen printzipio orokorren osagarri izango dira, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan esleitutako proiektuen ezarpen efikaza lortzera eta proiektuen helburuak betetzera bideratuta egongo dira. Funtsen xurgapenean izango duten garrantziagatik, nabarmendu beharrezkoak dira plangintza estrategikoaren eta helburuen arabeko kudeaketaren printzipioak eta prozeduretan, prozesuetan eta zereginak

betetzean aplikatu beharreko arintasun, azkartasun, sinpletasun eta argitasunaren printzipioak.

Titulu horretan, halaber, kudeaketa- eta koordinazio-gidalerro batzuk jasotzen dira, helburu hauek lortzeko: funtsak kudeatzeaz arduratuko diren administrazio-organoen artean sinergiak sortzea, mekanismo berritzaileak bultzatuz (diziplina anitzeko taldeak, foro teknikoak eta lantaldeak, esate baterako); eskuragarri dauden baliabideen kopurua maximizatzea; Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzean informazioaren teknologia berriak erabil daitezzen bultzatzea; eta, azkenik, Administrazioari burutzen diren ekintzak ebaluatzen, desbideratzeak identifikatzeko eta zuzenketak egiteko ahalmena ematea.

III

II. tituluaren, zenbait neurri orokor biltzen dira, administrazio publikoak XXI. mendeko tresnak edukitzea lortzeko, eginkizunak modu efikaz eta estrategikoan bete ditzen, helburuak betetzea oinarritzat hartuta, herritarrei zerbitzu publiko hobea emateko.

Horri lotuta, une honetan, arau hau onartzeaz batera, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren lege-aurreproiektua ari dira izapidetzen. Arau hori funtsezkoa da modernizazio-erreformarako, hari esker estatu-agentziek organismo publikoen izaera berreskuratzen baitute. Hala, aukera ematen du Administrazio Publikoan kudeaketarako autonomia eta malgutasun handiagoko antolaketa-formula bat txertatzeko berriz ere, efikazia kontrolatzeko mekanismoak dituen eta emaitzen erantzule izatearen kultura sustatzen duena. Eredu horrek ikuspegi funtzional eta antolaketakoa du, baita aurretik modu zehatz eta ebaluagarrian finkatutako helburuak betetzera bideratutako kudeaketa-filosofia bat ere.

IV

II. tituluaren bigarren kapitulua administrazio-hitzarmenen izapidetzea sinplifikatzeari buruzkoa da, eta azken xedapenetako bigarrenengan garatzen da. Xedapen horretan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak dakartzen egiturazko aldaketak jasotzen dira.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio-hitzarmenen lege-esparrua eta tipologia sistematizatzeari ondoz, kontrol gehiago eta nahitaezko izapide gehiegi txertatu ziren, hitzarmen horiek beren araudira egokitzeko berme juridiko handiagoa izateko. Baina, batzuetan, sistematizatzeko horrek mugatu egin du hitzarmenok administrazio publikoen, administrazio publikoei lotutako edo haien mendeko organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateen eta zuzenbide pribatuko subjektuen arteko lankidetzaren antolatzearen tresna gisa erabiltzea.

Suspertzerako Europako Bitartekoaren kudeaketan hitzarmenak erabiltzeak ekar ditzakeen abantailak bat zera da, interes orokorreko helburuak betetzeko behar diren jarduketak Administrazioaren laguntzaile diren entitateen bidez antolatu ahal izatea, horien prozedurak askoz arinagoak dira eta.

Administrazio-hitzarmenen araubide juridikoan egin nahi den erreforman, izapidetzeari arintasun handiagoa eman nahi izan zaio, kendu daitezkeen eginbideak kenduta.

Halaber, hurrengo ekitaldian edo ondorengoetan beteko diren hitzarmen-espeditentak alde aurretik izapidetu ahalko dira, eta formalizazio-faseraino iritsi ahalko da, betiere ordainketa hurrengo ekitaldira arte atzeratzen bada.

Horrez gain, finantzatutako jarduketak egiteko beharrezkoak diren prestaketa-eragiketengatik aurrerakinak jasotzeko aukera aurreikusten da; gehienez ere, jaso beharreko zenbateko osoaren ehuneko berrogeita hamar.

Azkenik, administrazio-hitzarmenen gehieneko iraupena luzatu da, Suspertzerako Europako Bitartekoaren proiektuek dakartzaten aldi baterako beharretara egokitzeko.

V

II. tituluaren III. kapituluan, lankidetza publiko-pribatuko figura berri bat jasotzen da: ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoak (ESEPEak). Hainbeste baliabide mobilizatzeak ekonomian duen eragin biderkatzailea dela eta, lankidetza publiko-pribatua funtsezkoa izango da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako proiektu bide-erakusleak egikaritzeko, eta beharrezkoa izango da lankidetza publiko-pribatuko tresnen arau-esparrua egokitzea Suspertzerako Europako Bitartekoarekin finantzatu daitezkeen proiektuen eskakizunetara hobeto egokituko diren formula malguetara, Batasunaren kontrol eta eskakizunei eutsita.

Figura berri hori luzaroan irauteko asmoz sortu da, gure ordenamenduan lankidetza publiko-pribatuko tresna berriak txertatzeko, kudeaketa arina izan dadin. Hala ere, bereziki interesgarria da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eremuan aplikatzea, haren bidez gure herrialdearen hazkunde ekonomikoari, enpleguari eta lehiakortasunari argi eta garbi laguntzen dioten proiektuak indartu nahi baitira, ekimen pribatuak gauzatzen ez direnean —mota horretako proiektuek arrisku handia dakartelako eta haiek gauzatzeko arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza behar delako— azpi-inbertsioaren merkatu-akatsa zuzentzeko.

Izaera estrategikoko proiektuak dira ESEPEak; ekonomiaren gainerako sektoreak bultzatzeko ahalmen handia dute, eta administrazioen, enpresen eta ikerketa-zentroyen arteko lankidetzaren beharra dute, proiektu horien barruan gure herrialdean egiten diren eragiketak eskalan jartzeko.

Kategoria horrek Europako interes komuneko proiektu garrantzitsuek Espainian duten isla izatea du helburu, eta barnean hartuko ditu sektore estrategikoetan egiturazko eragin eraldatzailea duten proiektu bide-erakusleak, edo ikerketa eta berrikuntzako fase disruptibo eta asmo handikoak dituztenak, ondoren industrian hedatzeko, sektorearen baldintza teknikoak edozein direla ere. Proiektu horiek arrisku handia ekar dezaketenez eta funtsak bideratzeko eta sinergiak sortzeko maila batean eta bestean lankidetzan aritu behar denez, figura bereizi baten premia dago, proiektuok babesteko eta haien barruko eragiketak eskalan jartzeko.

Kategoria horren jarraipen egokia egiteko, Ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroa jarriko da martxan, Ogasun Ministerioaren mendean. Haren funtzionamendua eta egitura ezartzeko premia dela eta, errege lege-dekretuak berariazko gaikuntza ematen dio Ogasuneko ministroari erregistroa sortzeko eta martxan jartzeko.

ESEPEen formalizazio eta instrumentazio juridikoa aplikatu beharreko legeriaren arabera egingo da, merkatuetako lehiaren, diskriminaziorik ezaren eta konkurrentziaren printzipioak errespetatuz.

VI

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana herrialde-proiektu bat da, eta ekonomia- eta gizarte-arloko agente guztiek, gobernu-maila guztiek eta administrazio publikoaren baliabide guztiek parte hartu behar dute bertan.

Egungo egoerak eragindako presako testuinguruan, plana eraginkorra izan dadin, hura egikaritzeko eta kontrolatzeko tresna arinak beharko dira, bai eta gardentasuna, jarduketan koherentzia eta iraunkortasuna bermatuko dituen gobernantza ere.

Horregatik, gobernantza-organo batzuk sortzen dira, agente ekonomiko, sozial eta politiko nagusien proposamenak bilduko dituen parte-hartze prozesua bermatzeko, eta, aldi berean, administrazio-maila batzuekin eta besteekin koordinatzeko beharrezko mekanismo izan daitezten.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordea sortzen da, eta Gobernuko presidentea izango da batzordeburu. Era berean, Komite Tekniko bat sortzen da, Batzordeari laguntzeko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Konferentzia Sektoriala sortzen da, autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak kide direla. Ogasuneko ministroa izango da

buru, autonomien estatuan oinarritutako Espainiako sistemak berezko duen maila anitzeko lurraldekako gobernantza bideratzeko eta plana ezartzeko lankidetzaz- eta koordinazio-mekanismoak eta -bideak ezartzeko.

Azkenik, Gobernuaren eta plana egikaritzen parte hartzen duten gainerako agenteen arteko lankidetzaz trabarik gabea eta erregularra izango da. Horretarako, goi-mailako foroak eta kontseiluak sortzen dira planean parte hartzen duten sektore nagusiekin.

Plana egikaritzeari dagokionez, Ogasun Ministerioko zuzendaritza-zentro eskudunaren (gaur egun, Europako Funtsen Zuzendaritza) giza gaitasunak, gaitasun materialak eta antolaketa-gaitasunak indartuko dira, egitura egokia eratuz eta behar diren administrazio-neurriak hartuz. Egitura hori agintaritza arduradun izendatuko da, eta Europako erakundeen aurrean kontuak emango eta Suspertzerako Europako Bitartekoaren mekanismoak kontrolatuko ditu.

VII

Administrazio publikoek etengabeko modernizazio-prozesuari ekin diote, gertatzen ari diren aldaketa sozial eta politikoetara egokitzeko, aldi demokratiko osoan egin duten bezala.

XX. mendean, administrazio publikoek arrakastaz heldu zieten 80ko hamarkadako transformazio handiei: Espainian ongizate-estatuaren oinarriak jartzeari eta lurralde-antolaketa-eredua eraldatzeari. 90eko hamarkadan, aldiz, Espainiak egitura-funtsak eta Kohesio Funtsa xurgatzeari ekin zion, bere ekoizpen-eredua eraldatzeko, Europaren eraikuntza-prozesuaren esparruan.

Mende honetan, Atzeraldi Handiaren ondorio suntsitzaileei edo plantilletan erreleborik ez izateari aurre egin behar izan diete, erresilientzia erakutsi behar izan dute, eta herritarrei zerbitzuak ematen jarraitu.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako proiektuak kudeatzea eta egikaritzea erronka bat ez ezik aukera bat ere bada. Unitate jakin batzuei asko handituko zaie lan-karga datozen urteetan, eta administrazio publikoek baliabide mugatuekin egin beharko diote aurre erronka horri. Horretarako, antolaketari, prozesuei, langileen kudeaketari eta digitalizazioari buruzko hausnarketa estrategikoa egin behar da.

Errege lege-dekretu honetan, konponbide malguak txertatu dira bitartekoen eta antolaketa-erlan, planaren kudeaketari era efikazean hel dakion, hartara administrazioa gaitzeko funtsak arrakastaz xurga ditzan, interes orokorra zainduta.

VIII

Digitalizatzeko bitartekoei eta informazioaren teknologia berriak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa publikorako tresna gisa erabiltzeari dagokienez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren web-atari bakar bat sortzea aurreikusten da, planarekin zerikusia duten interesdun eta agenteentzako informazio guztiaren banaketa zentralizatu eta bideratzeko tresna izan dadin.

Atari hori Planaren «leihatila bakarra» izango litzateke, Administrazioarekiko harremanetarako gune formala, interesdunek eskaerak eta prozeduren izapideak egiteko.

Azkenik, aurreikusten da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren web-atari bakarrak arreta-zerbitzua eskaini ahalko diela Suspertzerako Europako Bitartekoaren ondoriozko deialdietan parte hartu nahi duten pertsona eta entitateei; eta, batez ere, planari eta hura ezartzeko bitartekoei buruzko informazio-iturri eta -gune izan ahalko dela agente publiko eta pribatu guztientzat.

IX

IV. titulua Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-berezitasunei buruzkoa da. Hasteko, I. kapituluan, aurrekontuen kudeaketaren eta kontrolaren arloko berezitasunak jasotzen ditu.

Kapitulu horretan, urteko kuoten kopurua handitzea eta ondorengo ekitaldietan bete beharreko gastu-konpromisoak hartzeko baimena ematea proposatzen da, Europako araudiak finantzaturako proiektuak egikartzeko ezartzen duen gehienekora arte; izan ere, suspertze-plana egikartzeko espediente gehienek hasierako kredituen mugak gaindituko dituzte.

Aurreikusten da aurrekontukoak ez diren gastuen eta eragiketen aurrekontua ixteko aginduek epe bereziak izan ditzaketela funts horien kudeaketarekin lotutako kredituetarako, kasu horietan aurrekontu-egutegia egokitu ahal izateko. Era berean, malgutu egingo da urte anitzeko konpromisoak hartzeko aukera.

Kreditu-geldikinak txertatu ahalko dira, hartutako gastu-konpromisoak babesteko. Gastu horiek ez dira hurrengo ekitaldiko kredituetatik kenduko, eta, horrela, adostutako mugarriak eta xedeak betetzeko kreditu erabilgarriak handituko dira eta Batzordearen diruzulketak errazago eskuratu ahalko dira.

Aukera egongo da aurrekontu-aldaketak egin ondorengo ekitaldietako gastu-espedienteak aldeztu aurretik izapidetzeko, eta gastu-konpromisoa formalizatu ahalko da Susperaldirako eta Erresilientziarako Mekanismoaren funtsekin finantzatzen den edozein espedientetarako.

Era horretako negozioetan aurreikusitako prestazioak eman eta justifikatu aurretik, hitzartutako funtsen ordainketa aurreratuak egiteko aukera malgutuko da; gehienez ere, jaso beharreko zenbateko osoaren ehuneko berrogeita hamar jaso ahalko da.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako eta gastuen aurrekontuetan kontsignatutako kredituen artean transferentziak eta aurrekontu-aldaketak baimentzeko eskumenak esleitzen zaizkie ministerio-sailtako titularrei, organismo autonomoetako presidente edo zuzendariei eta aurrekontu mugatzailea duten Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako entitateei.

Autonomia-erkidegoei transferitu behar zaizkien Suspertze Planeko funtsetarako aurreikusten diren gastu-kudeaketarako arauak malgutuz dira, eta, aldi berean, aurreikuspen hau jasotzen da: konferentzia sektorialaren esparruan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean xedatutakoaren arabera, autonomia-erkidegoek kudeatutako urte anitzeko dirulaguntzetarako funtsak banatzeko irizpideak onartuko dira, kudeaketa-plangintza hobetu ahal izateko.

X

Fiskalizazioaren eta kontrolaren arloko berezitasunei dagokienez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatzen diren espedienteen gaineko kontu-hartzaitzari buruzko araudia egokitzen da aipatutako funtsen kudeaketari buruzko araudi berriaren ondoriozko espezialitateetara, izapideak arindu eta malgutzeko. Hala, funtsak oker aplikatzea ekiditeko aurretiazko kontrolak eskaintzen dituen bermeen eta funts-kudeaketa arinaren arteko oreka hobetuko da, eta aprobetxamendua maximizatu ahalko da.

Aldez aurreko fiskalizazioko eta kontu-hartzaitzako araubidea baliatuko da, betiere egintzak kontu-hartzaitzako eginkizunaren mende badaude, Planaren barruan abian diren espediente mota guztietarako oinarritzko betekizunen arabera, espediente mota eta haren zenbatekoa edozein izanda ere.

Espediente horiek bideratzeak lehentasuna izango du, eta beste edozein espediente baino lehen izapidetuko dira. Kontrol-organoak bost egun balioduneko epean eman beharko du ebazpena.

Mota horretako espedienteen aurretiazko fiskalizazioa eta aurretiazko kontu-hartzea egiteko, kontu-hartzaitza eskudunari gauza bakarra bidali beharko zaio: ezarritako kontrol-araubidearen arabera kasuan-kasuan aplikatzekoak diren eskakizunak betetzen direla egiaztatze behar den dokumentazioa.

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 149.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Ministro Kontseiluak kontu-hartzaitzako eginkizunaren ordezkari finantza-kontrol iraukorra aplikatzea erabaki ahalko du.

XI

IV. tituluaren II. kapituluak administrazio-prozeduren arloko berezitasunak aztertzen ditu.

Europako araudiak eta, bereziki, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa onartzeko akordio eta negoziazioek berariaz ezartzen dute kudeaketa efizientearen edo erregulazio onaren printzipioak aplikatu behar direla (*better regulation*); horrek, nolana ere, gehiegizko erregulazioa eta karga administratiboak ekidingo eta hautatutako tresnak ebaluatzeko mekanismoak indartuko ditu.

Joan den urriaren 7an, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana aurkeztu zuen Gobernuak, eta, horren bidez, Espainiak Suspertzerako Europako Bitartekoaren mekanismoen finantzaketa jaso ahalko du, Europar Batasunaren jarraibideak beteta.

Tresna horiek kontraziklikoak dira, eta presaz hedatu behar dira susperraldi ekonomikoa bultzatzeko, COVID-19aren pandemiak eragindako ondorio kaltegarriak arintzeko eta zehaztu den egiturazko eraldatze-prozesua bultzatzeko. Bereziki, trantsizio berde eta digital bikoitzerako Europaren agendan hedatu behar dira tresna horiek, eta, horretarako, Suspertze Planean jasotzen diren neurriak arin ezarri behar dira, 2021ean egikaritzen hasteko eta ikuspuntu makroekonomiko eta egiturazkotik lortu nahi den inpaktua erdiesteko. Horretarako, xedapen orokorrei eta administrazio-prozedurei buruzko arau orokorrak egokitu behar dira, bai eta Suspertzerako Europako Bitartekoaren funtsak betearazteko hitzarmenak sinatu ere. Hori guztia, jardun publikoak izan beharreko bermeak eta izapideetan behar den zorrotasuna inola ere murriztu gabe.

Hori guztia dela eta, lehenik eta behin, arau honek deklaritzen du Nazioko Gobernuaren esparruan xedapen orokorrak egiteko prozedurarako Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legean ezartzen den presako tramitazioa aplikatuko dela. Aurreikuspen horrek, beraz, ez du baldintzatzen autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek arauen izapidetze-prozedurak antolatzeko duten modua (toki-erakundeek berek erabakiko dute horiek nola antolatu, beren burua antolatzeko eskumenak baliatuz), helburu bera badute: Europako funtsak arinago betearaztea. Hori, aldi berean, bat dator Batasuneko subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioekin.

Prozedurari dagokionez, errege lege-dekretu honen bidez, presaz izapidetu beharrekotzat jotzen dira, halaber, arau honen aplikazio-eremuaren barruan dauden administrazio-prozedurak, funtsak betearaztearekin lotuta badaude.

Azkenik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50.2 artikuluan aurreikusitako txostenei dagokienez, Estatuaren Administrazio Orokorraren eta hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen arteko hitzarmenen sinadura-prozeduraren epeak laburtzea aurreikusten da. Eremu horretan, berriz ere, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek izango dute sinplifikatu edo arindu beharreko hitzarmenen izapidetze-prozedurak prestatzeko eskumena.

Salbuespen-neurri horiek guztiak, nola ez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko bakarrik erabiliko dira, eta kasuan-kasuan dagozkion Estatuko eta Europar Batasuneko araudietan aurreikusitako ezarpen-aldian soilik aplikatuko dira.

XII

IV. tituluaren III. kapitulua administrazio-kontratazioaren arloko berezitasunei buruzkoa da.

Han xedatzen da Espainiako Erresumak suspertze-planaren esparruan jasotako funtsekin finantzatzeko kontratu guztiei aplika dakiekeela presaz izapidetzeko salbuespenezko araubidea; ondorioz, epeak laburtuko dira, eta prozedura arindu.

Prozedura ireki sinplifikatu, arrunt eta laburtuez baliatu ahal izateko atalase ekonomikoak igo egin dira; hala, kontratu gehiagori aplikatu ahalko zaizkie, eta izapideak arindu ahalko dira.

Egin beharreko kontratuen klausula tekniko eta administratiboen agiri-ereduak egitea sustatzen da, beharrekotzat jotzen diren irizpide berdeak, digitalak, berrikuntzakoak,

ETEak sustatzekoak eta erantzukizun sozialekoak txertatuz, organo kudeatzaileek errazago izapidetu ditzaten.

Kontratazio-prozeduretan eskatu behar diren baimenen eta txostenen araubidea berrikusten da, eta sinplifikatu egiten da. Halaber, kontratazio-arloko errekurso berezia aurkezteko eta ebazteko epeak berrikusten dira, arinago ebatz daitezzen; aldi berean, atal berri bat sortzen da Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusian, haren osaera indartzeko.

Entitate kontratatzaileek kasuan kasuko kontratuen prestazioak zuzenean emateko aukera jasotzen da, bitarteko propioez baliatuta, enkargu bidez, legez dagokion tarifaren truke. Beraz, kasu horietan, baimenen araubidea malgutzen da, baita hirugarrenak azpikontratatzeko aukera ere.

XIII

IV. tituluaren V. kapituluak dirulaguntzen kudeaketaren arloko berezitasunak biltzen ditu.

Europako funtsen erabilerarekin lotutako dirulaguntzen izapideak sinplifikatzen dira, eta presako prozedura erabiltzeko aukera ezartzen da, interes publikoko arrazoiek hala eskatzen dutenean; era berean, nahitaezko txostenen eta baimenen betekizunak ezabatzen dira.

Ezartzen da funts horien erabilerarekin zerikusia duten dirulaguntzen deialdiek dirulaguntzak emateko oinarrien araubidea hartuko dutela barnean, eta, halaber, onartzeko barne-betekizunak sinplifikatzen dira, baita onuradun izan daitezkeenek aurkeztu beharreko dokumentazioa ere.

Lehiarik gabeko dirulaguntzak emateko aukera aurreikusten da, Suspertze Funtzaren kontura, baldin eta dirulaguntza horien bidez finantzatu nahi diren jarduketa edo egoera zehatzek beste proposamen batzuekin konparatuz baloratzerik behar ez badute. Kasu horietan, eskabideak zer hurrenkeratan aurkeztu diren bada horren arabera ebatziko dira dirulaguntzak, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte, aldez aurretik egiaztatuta delako egoera edo jarduketa diruz lagundu daitekeela eta gainerako baldintzak betetzen direla.

Dirulaguntzen onuradunek dirulaguntzen aplikazioa justifikatzeko aurkeztu behar duten dokumentazioa sinplifikatzen da, eta, besteak beste, neurri hauek jasotzen dira: justifikazio-kontu sinplifikatu bat aurkezteko eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzeko atalase ekonomikoa handitzea; eta, aurkeztu beharreko memoria ekonomikoetan, aurrekontuan jasotako kontzeptuen arteko konpentsazioak egiteko aukera izatea, baldin eta kontzeptuok dirulaguntzaren helburuak lortzera bideratuta badaude.

XIV

IV. tituluaren VI. kapituluak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuetako ingurumen-ebaluazioaren arloko berezitasunei buruzkoa da.

Bertan, azken xedapenetako hirugarrenean, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzen da, ingurumen-ebaluazioko prozedurei arintasun eta segurtasun juridiko handiagoa emateko. Horrela, suspertze ekonomikorako proiektuak errazago izapidetu nahi dira, batez ere Europar Batasunaren Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoaren teknologia garbien, energia berriztagarrien eta energia-efizientziaren arloetako inbertsio-planen esparruan, eta, aldi berean, ingurumenaren babesa bermatu nahi da.

Ingurumen-ebaluazioko prozeduraren faseetan ebazpen-epeak laburtzea da helburua. Zehazki, planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduran epeak laburtu dira, eta, horrez gain, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuko prozedurak izapidetzeko epeak eta mota horretako prozeduren ebazpenak argitaratzeko edo, hala badagokio, jakinarazteko epeak laburtu dira.

XV

Amaitzeko, IV. tituluaren azken kapituluaren arabera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko lankidetzak publiko-pribatuko tresna izango dira Espainiako ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotutako jardueretarako laguntza-deialdietara eskabideak aurkezteko sortzen diren taldeak. Talde horiek izango dira aipatutako planeko proiektu garrantzitsuak aurrera eramateko bitartekoak. Taldeko kide guztiak dirulaguntzaren onuradun izango dira, eta taldeak egin behar dituen jarduerak diruz lagunduen erantzule solidario izango dira. Era berean, justifikatzeko eta maileguzen kuota itzultzeko betebeharrak izango dute, eta arau-hausteen erantzule izango dira.

Helburu hori bera betetzeko, Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko partzuergoen araubide berezia aurreikusten da. Horren arabera, partzuergoak sortzeko, nahikoa izango da Komite Teknikoaren aldeko txostena jasotzea, eta ez da beharrezkoa izango urriaren 1eko 40/2015 Legeak exijitzen duen legezko baimena izatea.

Era berean, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak jasotzen duen ekonomia mistoko enpresaren egungo erregulazioa egokitu da, Suspertze Planaren babespean sortzekoak diren lankidetzak publiko-pribatuen baldintzekin bat etor dadin, eta etorkizuneko ekonomia mistoko enpresaren bazkidea hautatzeko prozedura arindu eta malgutu da, baina Europako zuzenbideak ezartzen dituen mugen barruan.

XVI

Xedapen gehigarrietan, aurreikusten da ESEPEetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroa sortzea, aipatutako proiektu estrategikoak egituratzeko, eta, horrez gain, helburuak lortu ahalako edo lanaldi partzialeko eginkizun gehigarri esleituen araberrako ordainsari aldakorra erabiltzeko aukera ezartzen da. Tresna horien bidez, unitateei edo unitatetat hartzen ez diren lantaldeei atxikitako langileen jarduna konpentsatuko da, baldin eta Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsak betearazteko eginkizunak esleituta badituzte errege lege-dekretu honetan bildutako modalitateetan.

Azken xedapenetako lehenengoa errege lege-dekretuaren eskumen-tituluari buruzkoa da.

Azken xedapenetako bigarrenean, errege-lege-dekretu honetan jasotako neurrien ondorioz Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

Azken xedapenetako hirugarrenean, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eskatutako aldaketak txertatzen dira, ingurumen-arloko izapideak sinplifikatzeko.

Azken xedapenetako laugarrenaren bidez, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailearen 3ko 6/2018 Legearen bigarren xedapen gehigarria aldatzen da.

Azken xedapenetako bosgarrenak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea aldatzen du (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Azken xedapenetako seigarrenak Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen du, Natura Ondararako eta Biodibertsitatearako Funtsa «Leheneratze Ekologikorako eta Erresilientziarako Funtsa» bihurtzeko.

Azken xedapenetako zazpigarrenak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua aldatzen du, eta zortzigarren xedapen gehigarriak urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua aldatzen du (Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailearen 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua onartzeko, zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita), titulartasun publiko edo pribatuko instalazioei ingurumen-baimen integratua emateko ezarritako epeak arintzeko, baldin eta instalazio horietan aipatutako arauetan zehazten diren kategorien sartzen den industria-jardueraren bat egiten bada.

Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginari dagokionez, 19. artikulua aldatzen da, arroko erakundearen txosten nahitaezko eta loteslea egiteko epea laburtzeko. Halaber, 21. artikulua aldatzen da, ingurumen-baimen integratua emateko organo eskudunak ebazpena emateko duen gehieneko epea laburtzeko. Epe hori igarotakoan, aurkeztutako eskabidea ezetsizat jo ahalko da.

Bestalde, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen eta aldi berean industriako emisioei buruzkoa den Erregelamenduaren 15. artikulua aldatzen da, baimena funtsean aldatzeko prozedura sinplifikatua arautzen duena, ingurumen-baimen integratua eta arroko erakundearen txostena emateko epea laburtzeko.

Koherentzia-arrazoiengatik, beharrezkoa da bi arauetan ezarritako epeak aldatzea, ez zentzugabea izango litzatekeelako prozedura arrunta izapidetzeko epeak laburtzea baina funtsezko aldaketak egiteko prozedura sinplifikatuari dagozkionak, berriz, dauden daudenean uztea. Azken kasu horretan, aldaketa erregelamendu-mailakoa izango litzateke, segurtasun juridiko handiagoa lortzeko, errege-dekretu bati eragiten baitio.

Amaitzeko, azken xedapenetako bederatzigarrenak Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzen du. 34. artikuluari dagokionez, oro har, I+G+B arloan izenpetutako hitzarmenetan egokiagoa da hitzarmenaren espezifikotasunarekin araberakoa izatea hitzarmenaren indarraldia, oso zaila baita a priori baloratzea artikuluko horretan ezarritako epeak xedeak betetzeko egokienak diren ala ez. Konstituzio Auzitegiak 2018ko abenduaren 13ko 132/2018 epaian (7.b OJ) ondorioztatzen duenez, urriaren 1eko 40/2015 Legeak hitzarmenaren indarraldia buruz xedatzen duena estu lotuta dago ziklo politikoarekin, baita gastu publikoa arrazionalizatu eta kontrol ekonomikoa erraztearen aldeko Espainiaren aurrekontu-tradizioarekin ere. Ziklo politikoari dagokionez, I+G+B arloko proiektuak bereziak dira, eta ziklo politiko bano luzeagoak izan ohi dira. Zorionez, zientziaren arloan adostasun handia dago. Hitzarmenetan, hitzarmena azkentzeko edo salatzen mekanismoak jasota daude, alderdietako batek, nahi izanez gero, lankidetzara amaitu dezan, urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta hitzarmenak berak ezartzen dituzten bermeekin. Aurrekontu-tradizioari dagokionez, urriaren 1eko 40/2015 Legeak 49.d) artikuluan dio hitzarmenaren edukia barnean hartu behar duela, gutxienez, alderdietako bakoitzak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.

Hori dela eta, komeni da ikerketa-zentro, -institutu, -partzuergo edo -unitateak eta azpiegitura zientifikoak sortzeko hitzarmenetan (hau da, parte-hartzaileen konpromisoak jasotzen dituzten dokumentuetan) ezartzen den indarraldia bat etortzea hitzarmenaren bidez sortzen den entitatearen indarraldiarekin. Indarraldi hori mugagabea izan daiteke. Adibide bat jartzearren, ehun eta hogeita batgarren xedapen gehigarriak, «Análisis Genomikoko Zentroa» partzuergoa sortzeari buruzkoak, ezartzen du partzuergoaren indarraldia mugagabea izango dela.

Horrez gain, zuzenketa tekniko bat sartzen da; izan ere, paragrafo horretan, partzuergoak bakarrik aipatzen dira, baina b) letra kontsultatzeko dio, eta, han, ikerketa-zentroak, -institutuak edo -unitateak eta azpiegitura zientifikoak ere aipatzen dira.

Hamaikagarren xedapen gehigarriari dagokionez, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak ekainaren 1eko 14/2011 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua aldatu zuen. 3. apartatu horrek I+G+B proiektuetarako zuzeneko dirulaguntzak ematea arautzen du, baldin eta proiektu horiek EBren urte anitzeko esparru-programak egikaritzu zenbait estatu kide sortutako egiturek egindako deialdi publikoen ondorio badira, edo ikerketa eta berrikuntza lehiakorrek deialdi publikoen ondorio. Deialdiok parekoen bidezko nazioarteko ebaluazio-estandarren arabera ebaluatzen dira, eta Espainiak sinatutako nazioarteko itun edo akordioetan oinarrituta sortutako egituren bitartez kudeatzen.

Xedapen gehigarri hori Estatuak emandako dirulaguntzei eta laguntzei buruzkoa bada ere, eta 3. apartatuaren aplikazio-eremua Estatuko finantzaketa-agente publikoetara mugatzen bada ere, bai ekainaren 1eko 14/2011 Legearen azken xedapenetako

bederatzigarrenaren 7. apartatuak eta bai ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak oinarritzko xedapentzat hartzen dute, eta horrek esan nahi du autonomia-erkidegoei ere aplika dakiekeela.

Hori dela eta, hamaikagarren xedapen gehigarria aplikatzean beharrezkoa den segurtasun juridikoa bermatze aldera, beharrezkotzat jotzen da xedapena aldatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako ikerketa finantzatzen duten agente publiko guztiei aplikatu ahal izateko. Hala, ez da zalantzan jarriko, autonomia-erkidegoetako ikerketa finantzatzen duten agente publikoek ere erabil dezaketela neurri onuragarriago hori, 23/2020 Errege Lege Dekretuaren zioen azalpenean nabarmentzen denari jarraikiz. «Horri esker, urrats administratibo bat ezaba daiteke, balio erantsirik ekartzen ez ziena ez onuradunei eta ez Administrazioari; hau da, ez dago dirulaguntzen bigarren barne-deialdirik egin beharrik nazioartean dagoeneko ebaluatu eta hautatu diren proiektuetarako». Modu horretan, baterako finantzaketarako aukerak hobetuko dira.

Bestalde, kudeaketa errazte aldera, ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuak erantzukizun autonomoa duten unitate funtzional bereizitzat hartzea proposatzen da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publikoen barruan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 101.6 artikuluan ezartzen duen balio zenbatetsia kalkulatzeko.

Azken xedapenetako hamargarrenak Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legea aldatzen du, 91. artikuluan sortutako funtsaren xedea zabaltzeko. Hala, funtsaren xedea ekonomia funtsezko sektoreetan berrikuntza sustatzeko jarduketak ere hartuko ditu barnean.

Bukatzeko, azken xedapenetako hamaikagarrenak Herri Lanen Kontzesioko Kontratuak Arautzen dituen maiatzaren 23ko 13/2003 Legea aldatzen du, azken xedapenetako hamabigarrenak erregelamendu-arauetan eragina duten erregulazioetarako maila-babesa jasotzen du, eta azken xedapenetako hamahirugarrenak araua BOEn argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jarriko dela ezartzen du.

XVII

Errege lege-dekretu honek, alde batetik, ez die eragiten tresna arauemaile honen eskumenetatik kanpo dauden gaiak, eta, bestetik, mota horretako arauak erabiltzea justifikatzen duen aparteko eta presako beharrianari erantzuten dio.

Lehenengo alderdiari dagokionez, hona zer ezartzen duen Espainiako Konstituzioak 86.1 artikuluan: errege lege-dekretuek «ezingo dute eraginik sortu estatuaren oinarritzko erakundeei buruzko antolamenduan, 1. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskundeei buruzko zuzenbide orokorrean ere». Errege lege-dekretu honetako neurrietako batek ere ez die eragiten gai horiei, konstituzio-jurisprudentziak termino horri eman dion zentzu murriztailean (Konstituzio Auzitegiaren 139/2016 epaia, uztailaren 31koa).

Bigarren alderdiari dagokionez, hau da, aparteko eta presako beharrianaren baldintza betetzeari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaiak, ekainaren 7koak, 4. oinarri juridikoan ezartzen duenaren arabera, batetik, beharrezkoa da «gobernuak tresna hori onartzeko aztertu dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», hau da, aparteko presako egoeraren berri ematea; bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean».

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. OJ; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. OJ; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. OJ; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. OJ; 68/2007 epaia, 10. OJ, eta 137/2011 epaia, 7. OJ), presako legegintza egiteko arrazoia egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean —esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena

baino epe laburra goan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Errege lege-dekretuak berehala onartzen dira, eta, hori horrela izan dadin, errege lege-dekretu baten edukiak arrazoi objektiboetan, egokitasun politikoan eta aparteko presan oinarrituta egon behar du. Besteak beste, errege lege-dekretu bat emateko oinarria izan daiteke Europar Batasunak Espainiari funtsak eskuratu ahal izateko ezarri dizkion eskakizunei ahalik eta lasterren erantzun behar izatea. Horiek horrela, funtsak modu arin eta efikazean kudeatzeko behar diren baldintzak sortuko dira, helburu hauek bermatu ahal izateko: premia ekonomiko eta egiturazko handienetan inbertitzea; hazteko ahalmena sendotzea; enplegua sortzea; inbertsio publiko eta pribatua sustatzea eta ekoizpen-sareari laguntzea; trantsizio ekologiko eta digital bikoitza bizkortzea; eta erresilientzia eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza indartzea eta areagotzea, Europako merkatu bakarraren esparruan.

Gauzak horrela, I. tituluan, xedapen orokorrei buruzkoan, zenbait kudeaketa-printzipio eta -jarraibide txertatzen dira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana azkar eta modu efikazean inplementatzeko. Gainera, horiek araupetzea ezinbestekoa da administrazio publikoen jarduera funtsezko helburura bideratzeko, alegia, Europako funtsen xurgapena bultzatu eta erraztera, SARS-CoV-2aren pandemiak eragindako krisiaren ondoriozko kalteak konpondu eta Espainiako ekonomiaren egiturazko eraldatzea sustatzeko.

II. tituluaren edukiari dagokionez, eta kontuan hartuta administrazio-hitzarmenek garrantzi handia izango dutela Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana ezarri eta egikartzeko orduan, ezinbestekoa da hitzarmenen izapidetzeari, formalizazioari eta efikaziari buruzko araubide juridikoa berehala aldatzea, hura sinplifikatzeko, kudeaketa publikorako lankidetzateknika arin hori bultzatuz eta erraztuz.

Era berean, II. tituluak lankidetzateknika publiko-pribatuko figura berri bat jasotzen du: ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoak (ESEPEak). Tresna horrek ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko elkargunea izan nahi du, aurreikus daitekeen esparru juridiko bat eskaintzeko, non irtenbide berritzaileak, estrategikoak eta lankidetzakoak garatu ahal diren. Funtsezkoa da tresna hori errege lege-dekretu honetan berehala sartzea, lankidetzateknika publiko-pribatuak eskaintzen dituen aukerak optimizatzea ahalbidetuko duten proiektuak garatzen eta egikaritzen laguntzeko, ahaleginak batuz eta Espainiako ekonomia osoaren egiturazko eraldatzerako oinarriak ezarritik.

III. tituluan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egiteko prozedura eta gobernantza-egiturak eta kudeaketa publikoko tresnak arautzen dira. Azken bi horiek ezinbestekoak dira Europako funtsak kudeatzeko beharrezkoa den herrialde-proiektua garatu, egikaritu eta kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko. Funtse horiek xurgatzeko gaitasuna, neurri handi batean, administrazio-maila guztien koordinazioa eta agente ekonomiko, politiko eta sozialen parte-hartzea eta inplikazioa bermatuko duten tresna arin eta efikazak edukitzearen mende egongo da. Era berean, ezinbestekoa da Administrazio teknika berritzailez hornitzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden baliabideak modu arin eta efizientean kudeatu ahal izateko. Horrela bakarrik maximizatuko dira planaren onurak eta Espainiako ekonomian izango duen eragina. Horregatik, hemen jasotako neurriak hartzea atzerazina da, plan hori efikaz izateko ezinbesteko baldintza baita.

IV. tituluak kudeaketaren arloko berezitasunak jasotzen ditu, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana garatzea eta egikaritzea sinplifikatu eta errazteko. Berezitasun horiek ordenamendu juridikoaren eremu jakin batzuetan eragina dute, eta eremu horiek bereziki garrantzitsuak izango dira Espainiako ekonomiaren egiturazko eraldatzea helburu duten jarduketak guztiak gauzatuko direla bermatzeko, Europar Batasunaren Suspertze Planean zehazten den lehentasunen esparrua aintzat hartuta. Eremu hauek ari gara, zehazki: aurrekontuen kudeaketa eta kontrola, arauak egiteko prozedurak eta administrazio-prozeduren izapideak, kontratazio publikoa, administrazio-hitzarmenak, dirulaguntzak eta lankidetzateknika publiko-pribatuko zenbait teknika. Gauzak horrela, premiazkoa da mota horretako prozedurak arintzea, izapideak sinplifikatuz eta araubideko botila-lepoak ekidinez; horrela, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana berehala egikaritu ahal

da, aurreikusitako ondorioak ahalik eta lasterren nabaritzen has daitezzen Espainiako ekonomian. Arauketa berriak arintasun hori eta administrazio-jardunaren legezkotasunaren eta efikaziaren gainean nahitaez egin behar diren kontrolak egoki egin ahal izateko formulak uztartzen ditu, eta berme maila handia eskaintzen die herritarrei nahiz operadore ekonomikoei. Hori guztia, jakina, Europar Batasuneko zuzenbidearen printzipioak eta arauak errespetatu egiten da, hala nola berdintasuna, diskriminaziorik eza, konkurrentzia, merkatuko benetako lehia, gardentasuna eta publikotasunaren printzipioak.

Ildo berean, hau da, administrazio-prozedurak sinplifikatu eta arintzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana modu efizienteagoan egikaritu ahal izateko, azken xedapenek lege sektorialen erreforma jorratzen dute. Aldaketa horien guztien helburua da prozeduren administrazio-izapideak ahal den neurrian laburtzea. Hori premiazkoa da, Suspertze Planari lotutako proiektuak egikaritzeak eragingo dituen onurak ahalik eta lasterren nabaritu daitezzen, SARS-CoV-2aren pandemiak eragindako krisialdiaren ondoren susperraldi ekonomikoa bizkortzeko eta ekonomia nazionala berriz ere hazkunderako bidean sar dadin.

Azken xedapenen artean, bereziak eta, hortaz, bereiz aipatu beharrekoak dira Leheneratze Ekologikorako eta Erresilientziarako Funtsa sortu beharra eta Ekonomia Jasangarrirako Karbono Funtzaren araubidea aldatu beharra. Horiek estu lotuta daude Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren helburuekin, eta berebiziko garrantzia dute Europako funtsak behar bezala bideratu ahal izateko Espainiako ekonomiaren trantsizio ekologikoa sustatzen duten jarduketak eta proiektuak egikaritzera, Batasuneko erakundeek ezarritako lehentasunei jarraikiz.

Erregelamendu bidez arautu daitezkeen baina errege lege-dekretu honetan sartzen diren gaiak dagokienez, gogora ekarri behar da Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 28ko 14/2020 epaia. Haren 5. oinarri juridikoak honako hau dio: «(...) auzitegi honek Konstituzioaren kontraktat jo ditu, 86.1 artikulua aurkakoak izanik, deslegalizatzaileak baizik ez diren erregelamendu-erreferentziak, inolako epealdirik ez dutenak (29/1982 epaia, Auzitegi Gorenarena, maiatzaren 31koa, 6. oinarri juridikoa; 29/1986 epaia, Auzitegi Gorenarena, otsailaren 28koa, 2 c oinarri juridikoa); aitzitik, ez ditu Konstituzioaren kontraktat jo antolamendu-aldaketekin lotutako erregelamendu-gaikuntzak (23/1993 epaia, Konstituzio Auzitegiarena, otsailaren 13koa, 6. oinarri juridikoa), ez eta beharrezkoak direnak ere, teknikoki ezinezkoa baita berehala aplikatzea lege-dekretuaren manuak (12/2015 epaia, Konstituzio Auzitegiarena, otsailaren 5koa, 5. oinarri juridikoa)». Laburbilduz, Konstituzio Auzitegiak dioenez, lehen erregelamendu bidez arautzen zen gai bat antolatzeke errege lege-dekretu bat erabili nahi bada, Gobernuak, araugintzako produktu horren erabilera justifikatzeko, arrazoitu egin beharko du arauketa horrek zergatik eskatzen zuen maila-igoera errege lege-dekretu hori onartu zen unean.

Horren harira, errege lege-dekretu honen 64. eta 65. artikuluen bidez txertatutako dirulaguntzen arloko arauak bereziak dira uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduan ezarritako arau orokorren aldean. Baina horiek ordenamendu juridikoan txertatu behar dira berehala, errege lege-dekretu honen bitartez, ahalik eta koherentzia, sistematikotasun eta segurtasun juridiko handiena bermatzeko Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzak izapidetzeko eta emateko araubide berezian.

815/2013 Errege Dekretuan (815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua onartzekoa, zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita) egindako aldaketak funtsezko aldaketak izapidetzeko prozedura sinplifikatuari dagozkion epeetara mugatzen dira, eta koherentzia eta segurtasun juridikoaren arloko arrazoiak daude aipatutako erreforma errege lege-dekretu honetan sartzeko, errege lege-dekretuaren eraginpeko beste xedapen batzuekin estu lotuta dago eta. Ez luke zentzurik izango prozedura arrunta izapidetzeko epeak laburtzeak, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua aldatuta, baldin eta ez badira aldatzen, horrekin batera, funtsezko aldaketaren prozedura sinplifikatuari dagozkion epeak.

Laburbilduz, azaldutako arrazoi guztiek aski eta modu arrazoituan justifikatzen dute arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren epai hauek: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. OJ; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. OJ; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. OJ). Gainera, lotura egon badago azaldutako urgentziazko egoeraren eta hari aurre egiteko hartutako neurri zehatzaren artean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, errege lege-dekretu hau araubide onaren printzipioetara egokitzen da.

Hala, bete egiten da premiaren printzipioa, zeina guztiz justifikatuta geratu baita. Segurtasun juridikoaren, proportzionaltasunaren eta efikaziaren printzipioak ere betetzen dira, eta nabarmentzen da neurriak ordenamendu juridikoarekin bat datozela eta haiek in aukerarik onena egiten dela salbuespenezko egoera ikusita, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar den eta ezinbestekoa den erregulazioa biltzen baitute.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu bat denez, ez du aurretiazko kontsulta publikorik behar, ez eta entzunaldi-izapiderik eta jendaurreko informazioaren izapiderik ere, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua arabera; baina, nolahi ere, zioen azalpenean eta memorian behar bezala azaldu behar dira edukia eta xedeak.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, behar-beharrezkoak diren kargak baino ez dira ezartzen.

Errege lege-dekretu hau 149.1 artikulua 13., 14., 15., 18. eta 23. puntuetan xedatutakoa kontuan hartuz ematen da. Horietan, eskumen eksklusiboa esleitzen zaio Estatuari espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzearen arloan, konstituzio-eskubideak baliatzeari eta konstituzio-eginbeharrak betetzeari dagokienez, bai eta beste arlo hauetan ere: legeria prozesala, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen arlo horretako zuzenbide substantiboaren ondoriozko berezitasunak; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren koordinazioa eta oinarriak; Ogasuna eta Estatuaren zorra; ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapena eta koordinazio orokorra; administrazio publikoen araubide juridikoaren eta funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarriak, herritarrek haiengandik tratamendu bera jasotzea bermatzeko; administrazio-prozedura erkidea, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen berezko antolaketaren ondoriozko berezitasunak; nahitaezko desjabetzeari buruzko legeria; kontratuei eta administrazio-emakidei buruzko oinarriko legeria eta administrazio publiko guztien erantzukizun-sistema; eta ingurumena babesteari buruzko oinarriko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babeserako arau gehigarriak ezartzeko dituzten ahalmenak.

Horren arabera, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Gobernuaren lehenengo presidenteordeak eta Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko ministroak, Ogasuneko ministroak, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroak eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak proposatuta, eta 2020ko abenduaren 22ko Ministro Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea*.

1. Errege lege-dekretu honen xedea da behar diren xedapen orokorrak ezartzea, Europako funtsekin —bereziki, Suspertzerako Europako Bitartekotik datozen funtsekin— finantzatu daitezkeen jarduketak programatu, aurrekontuetan sartu, kudeatu eta egikaritzea errazteko. Suspertzerako Bitartekoa Europako Kontseiluak onartu zuen, 2020ko uztailaren 21ean, hazkunde ekonomikoa eta enpleguaren sorrera bultzatzeko, suspertu eta SARS-

CoV-2 pandemiak eragindako krisiaren kalteak konpontzeko eta egiturazko eraldatze-prozesua bultzatzeko. Hori guztia lortzeko, inbertsio publikoa eta pribatua bultzatu eta ekoizpen-ehunari lagunduko zaio, trantsizio ekologiko eta digital bikoitza bizkortuko da, eta erresilientzia eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartu eta areagotuko dira, Europako merkatu bakarraren esparruan.

2. Errege lege-dekretuak, halaber, zenbait neurri ezartzen ditu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana inplementatzeko. Plana Ministroen Kontseiluak onartuko du, eta, ondoren, ezarri eta Europako erakundeetan formalki aurkeztuko da.

3. Errege lege-dekretuak arau- eta administrazio-arloko oztopoak murrizteko tresna orokor batzuk jasotzen ditu, bai eta administrazio publikoak modernizatzeko neurri batzuk ere, kudeaketa arinagoa eta efizienteagoa izan dadin, funtsak errazago xurgatzeko.

4. Errege lege-dekretu honetako xedapenak aplikatuko dira, hargatik eragotzi gabe Europar Batasuneko erregelamenduek Europako funtsen kudeaketari buruz ezarri dituzten edo etorkizunean ezarriko dituzten arauketak.

2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Errege lege-dekretu hau sektore publikoa osatzen duten entitateei aplikatuko zaie, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. I. titulua, III. tituluaren III. kapitulua eta IV. tituluaren II., III., IV., V. eta VI. kapituluak, bai eta 46. artikulua ere, sektore publikoko edozein entitatek egindako jarduketei aplikatuko zaizkie, baldin eta Suspertzerako Europako Bitartekotik, Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik, Europako Gizarte Funtsa Plusetik, Landa Garapeneko Europako Nekazaritza Funtsetik eta Itsas eta Arrantzaren Europako Funtsetik datozen funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuak eta jarduketak kudeatzera eta egikaritzera bideratuta badaude.

3. III. tituluaren II. kapitulua eta IV. tituluaren VII. kapitulua sektore publikoko edozein entitatek Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoaren funtsekin lotuta egiten dituen jarduketei aplikatuko zaizkie.

4. III. tituluaren I. kapitulua eta IV. tituluaren I. kapitulua sektore publikoko edozein entitatek proiektuak eta jarduketak programatu, aurrekontuetan sartu, kudeatu, egikaritu eta kontrolatzeko egiten dituen jarduketei eta Suspertzerako Europako Bitartekoaren funtsekin finantzatu daitezkeen jarduketei aplikatuko zaizkie.

3. artikulua. *Kudeaketa-printzipioak.*

1. Administrazio publikoek, Europarako politika publikoak kudeatzeko eta egikaritzeko eta Gobernuak eremu horretan jarduteko bitartekoak direnez, objektibotasunez erantzuten diete interes orokorre, Konstituzioan, legeetan eta zuzenbidean ezarritako printzipioen arabera.

2. Administrazio publikoek, zerbitzuak eta agindu zaizkien ekintzak hobeto kudeatzeko eta, bereziki, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan esleitutako proiektuei lotutako helburuak era efikazean ezartzeko eta helburu horiek betetzeko, kudeaketa onaren printzipio hauek errespetatuko dituzte:

- a) Kudeaketaren objektibotasuna, efikazia eta erantzukizuna.
- b) Plangintza estrategikoa eta helburuen araberrako kudeaketa, horretarako adierazleak ezarrita.
- c) Kudeaketa berritzea eta sinergiak sortzea.
- d) Prozeduretan, prozesuetan eta zereginak betetzean, arintasuna, azkartasuna, sinpletasuna eta argitasuna.
- e) Baliabideak eta bitartekoak era arrazionalizatu eta efizientean erabiltzea.
- f) Parte-hartzea, elkarrizketa eta gardentasuna.
- g) Helburuak betetzeko ebaluazioa, jarraipena eta birprogramazioa.
- h) Administrazio publikoen arteko lankidetzeta, elkarlana eta koordinazioa.
- i) Gastu publikoaren kontrol efikaza, kudeaketaren erantzukizuna eta kontu-ematea.

- j) Interes-gatazkak, iruzurra eta irregulartasunak modu efikazean prebenitzea.
- k) Merkatuko benetako lehia sustatzea.
- l) Aurreikusitako iraupen mugatuko langileen horniduretan, berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna.

4. artikulua. *Kudeaketa-gidalerroak.*

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako proiektuak efikaziaz kudeatzeko, organo arduradunek gidalerro hauek beteko dituzte beren eskumenen esparruan:

- a) Ekintza, erreforma eta lantaldeen buru izatea.
- b) Beren eskumenekoak diren kudeaketa-helburuak eta helburu horiek betetzeko eskura dituzten baliabideak aztertzea.
- c) Egiaztatzea zertan ez datozen bat premiak eta eskura dauden baliabideak, eta esleitutako proiektuak egikaritzeko soluzioak proposatzea.
- d) Kudeaketa jasangarrirako soluzioen bilaketan berritzea.
- e) Beste administrazio-unitate batzuekin sinergiak sortzen saiatzea, modu bertikalean eta horizontalean, baliabideak aprobetxatzeko eta inpaktu handiagoa eragiteko.
- f) Eraldatze digitala sustatzea.
- g) Foro teknikoak ezartzea eta lantalde iraunkorrak, aldi baterakoak edo noizbehinkakoak sortzea, jardunbide onen berri emateko elkarri, soluzio komunak bilatzeko, elkarlanaren bidez, edo parekoengandik ikasteko.
- h) Garatutako ekintzak ebaluatzea, desbideratzeak identifikatu eta zuzentzeko.
- i) Diziplina anitzeko taldeetan edo jatorri desberdineko kidez osatutakoetan lan egitea, baldin eta horrek kudeaketaren efikazia eta efizientzia areagotzen badu.
- j) Langileek emandako aparteko zerbitzuak aintzatestea.

5. artikulua. *Koordinazio-gidalerroak.*

1. Administrazio-unitateen arteko koordinazioa handitzeko, lantaldeak sortu edo lehendik dauden unitateak izendatu ahalko dira, zeharkako kudeaketa-gaiak koordinatzeko eta sail guztientzako soluzio komunak proposatzeko, hala nola gai hauetan: kontratazio publikoa, dirulaguntzak edo laguntzak deitzeko prozesuak, lankidetzaren publiko-pribaturako bideen sorrera, funtsak kudeatzen laguntzeko sistema informatiko edo soluzio digitalen ezarpena eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana hobeto inplementatzeko beharrezko den beste edozein gai.

2. Aurreko apartatuan aipatutako taldeek proposamenak eta gomendioak egingo dituzte, eta gaian eskumena duten kudeaketa-organoei onartuko eta egikaritzeko dituzte, hala badagokie.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako lantaldeak sortzea edo unitateak izendatzea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoari dagokio, edozein kidek proposatuta.

6. artikulua. *Prozesu eta prozeduretarako gidalerroak.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoak, bere kabuz edo aurreko artikuluan aipatzen diren lantaldeetako edo unitateetako edozeinek proposatuta, prozedura-eskuliburuen orientabideak edo ereduak onartu ahalko ditu, bai eta lizitazio-agirien ereduak, dirulaguntzen edo laguntzen deialdietarako oinarriak, hitzarmenak edo bestelako dokumentuak ere, kudeatzaileentzako orientabide izan badaitezke, efikazia- edo efizientzia-arrazoiengatik.

2. Era berean, tresna informatikoak edo digitalak eskuratzeari buruzko gomendioak edo orientabideak onartu ahalko ditu.

3. 25. artikuluan kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnari buruz ezarritakoari dagokionez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoak eredu bat onartuko du, sail guztiek tresna hori formulatzeko.

II. TITULUA

Neurri orokorrak

I. KAPITULUA

Administrazio-hitzarmenen izapidetzea arintzeko neurriak

7. artikulua. *Administrazio-hitzarmenen izapidetzea sinplifikatzea.*

1. Administrazio-hitzarmenen kudeatzaileek eskura dituzten baliabideak erabiliko dituzte, hitzarmenen horien izapideak egiteko ezartzen den epea nahikoa izan dadin hitzarmenaren helburuak modu efikazean betetzeko, administrazioa arintzeko eta sinplifikatzeko printzipioen arabera.

2. Hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

II. KAPITULUA

Lankidetzaren publiko-pribaturako modu berriak

8. artikulua. *Ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoak.*

1. Ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikotzat (aurrerantzean, ESEPE) jo ahalko dira Espainiako ekonomiaren hazkundera, enplegua eta lehiakortasuna bultzatzeko ahalmen handia duten proiektu estrategikoak.

2. Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez deklaratu da proiektu bat ESEPE, gai bakoitzean eskumena duen saileko edo sailetako titularrek proposatuta. Horrekin batera, azalpen-memoria bat aurkeztuko da, eta, han, proiektuan jasotako laguntza eta lankidetzaren publiko-pribatuko neurrien plangintzaren eta interesdun izan daitezkeenak identifikatzeko betekizunen berri emango da. Hala badagokio, Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan nola txertatzen den azalduko da.

3. Proiektu bat ESEPE deklaratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

a) Hazkunde ekonomikoari, enpleguaren sorrerari eta Espainiako industriaren eta ekonomiaren lehiakortasunari ekarpen garrantzitsua egitea, barne-merkatuan eta gizartean dituen ondorio positiboak kontuan hartuta.

b) Ezagutzak, esperientzia, finantza-baliabideak eta agente ekonomikoak uztartzeko aukera ematea, merkatuko edo sistemaren gabezia handiak konpontzeko eta beste modu batera aurre egin ezin dakiekeen erronka sozialei aurre egiteko.

c) Izaera berritzaile nabarmena izatea edo I+G+B arloan balio erantsi handia ekartzea, adibidez, produktu, zerbitzu edo ekoizpen-prozesu berriak garatzeko aukera emanez.

d) Kuantitatiboki edo kualitatiboki garrantzitsua izatea, esan nahi baita tamaina edo irismen bereziki handia izatea, edo teknologia- edo finantza-arrisku oso handia eragitea.

e) Enpresa txiki eta ertainen integrazioa eta hazkundera sustatzea, eta lankidetzaren inguruneak bultzatzea.

f) Hala badagokio, ekarpen zehatza, argia eta identifikagarria egitea Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren helburu bati edo gehiagori, bereziki Suspertzeko Europako Bitartekoari lotuta Europar ezartzen diren helburuei.

4. ESEPEa proiektu bakar bat izan daiteke, helburuak eta egitaritze-modalitateak argi eta garbi zehaztuta dituen; edo proiektu integratu bat, hau da, egitura, lan-plan edo programa komun batean txertatutako proiektu multzo bat, helburu bera duena eta ikuspegi sistemiko koherentean oinarrituta dagoena.

ESEPEak ordenamendu juridikoan aurreikusitako mekanismo guztien bidez egikarrituko dira, hurrengo artikuluetan jasotako berezitasunak berezitasun; kasu horietan, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren, konkurrentziaren, publikotasunaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatuko dira.

5. ESEPEek ez dute merkatuko benetako lehia desitxuratu behar. ESEPE batean parte hartzen duten operadoreek lehiari buruzko araudia bete beharko dute beti.

9. artikulua. *Ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroa.*

1. ESEPEetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroa sortzen da, Ogasun Ministerioaren mende, eta bertan inskribatuko dira ESEPE baten garapenari lotutako entitate guztiak, izaera juridiko publikoa zein pribatua izan, eta haiek eratzeko modua edozein dela ere.

2. ESEPEetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroa publikoa izango da, eta sarbidea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

3. ESEPEetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroak atal bereizi bat izango du ESEPE bakoitzarentzat, gai bakoitzean eskumena duen ministerio-sailak kudeatua. Entitate bat atal jakin batean sartzen bada, egiaztatuta geratuko da entitatearen jarduerak ESEPE jakin horren oinarrian dagoen interes komunarekin zerikusia dutela.

4. Ogasuneko ministroari ahalmena ematen zaio erregistroa erregelamendu baten bidez garatzeko, haren funtzionamenduari eta egiturari buruzko arauak ezarrita, bereziki. Era berean, ESEPE bakoitzaren gai zehatzean eskudun diren ministroak gaitzen dira erregistroaren atal bakoitza erregelamendu baten bidez garatu dezaten, eta ezartzen da zer izaera juridiko eduki behar duten eta zer eskakizun eta prozedura bete behar dituzten entitateek erregistroan sartzeko, ESEPEaren bereizgarriak aintzat hartuta.

Apartatu honetan aipatzen diren erregelamendu-arauak izapidetzeko, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 27. artikuluan ezartzen duen presako prozedurari jarraituko zaio.

5. Erregistroa sartzeko prozedurak ez du alferrikako oztoporik jarri behar merkatuko lehiari.

10. artikulua. *ESEPE batean interesa duen entitate gisa akreditatzeko prozesuaren arau orokorrak.*

1. ESEPE bakoitza arautzean, argi eta garbi jaso beharko da haren definizioa eta irismena, eta publikotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren, konkurrentziaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak betetzen direla zaindu beharko da. ESEPEak arautzean, baldintza hauek beteko dira:

a) Ezingo da eperik ezarri entitate interesdun gisa akreditatzeko eskatzeko.
b) Egiaztatu beharreko baldintza kuantitatibo eta kualitatiboek eta haiek baloratzeko irizpideek ESEPEaren xedearekin bat etorri beharko dute, eta premiaren, proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete beharko dituzte. Baldintza horiek bete beharrak ezingo du ekarri erregistroan inskribatutako entitateen kopurua mugatzea.

c) Prozedura ebazteko eskumena duen organoa zein den zehaztuko da.

d) Akreditazioa eman ala ez ebazteko gehieneko epea ez da inola ere hiru hilabetetik gorakoa izango, eta, epe hori igarotakoan, ezetsizat joko da akreditazioa.

e) Akreditazioaren ondoriozko betebeharrak azalduko dira, hala nola akreditazioa lortu ondoren baldintzak aldatuz gero aldaketa horiek jakinarazteko betebeharra.

2. Akreditazioa onartu ondoren, ministerio eskudunak ESEPEetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroari jakinaraziko dio, gehienez ere 3 eguneko epean, entitatea inskriba dezan.

3. Entitateek interesa duten ESEPE bakoitzeko akreditazio bana eskatu beharko dute.

11. artikulua. *Ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategiko batean erregistratutako entitateentzako laguntzak.*

1. Erregistroan inskribatzea laguntzen onuradun izateko nahitaezko baldintzatzat hartu ahalko da, baldin eta hala ezartzen bada oinarri arautzaileetan edo deialdian (deialdiak oinarri arautzaileak barne hartzen baditu), eta kontuan hartuta proiektuan jasotzen diren laguntza-neurrien eta lankidetzak publiko-pribatuko neurrien plangintza.

2. Erregistroan inskribatuta egotea laguntzen onuradun izateko baldintza gisa ezartzeko, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legean aurreikusitakoari jarraituko zaio, eta bi kasu hauetan baino ez da ezarriko betekizun hori: interes orokorreko premiazko arrazoiren bat babesteko beharrezkoa denean eta ezin direnean helburu berak lortu neurri permisiboagoak edo jarduera ekonomikorako neurri onuragarriagoak erabilita. Nolanahi ere, ESEPEetan inskribatzeko exijitzen diren baldintza kuantitatibo eta kualitatiboak identifikatuko dira, eta enpresa eskatzailerik aukera emango zaio erregistroan inskribatu ordez baldintza kuantitatibo eta kualitatiboak betetzen dituela egiaztatzen dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean.

III. TITULUA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko tresnak

I. KAPITULUA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana

12. artikulua. *Izaera eta edukia.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana helburu estrategikoak eta Europar Batasuneko araudian aurreikusten diren Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoari lotutako erreformak eta inbertsioak diseinatzeko eta gauzatzeko tresna gidaria da. Erreforma eta inbertsio horiei esker, Espainiaren kohesio ekonomikoa, soziala eta lurraldekoa bultzatu, herrialdearen erresilientzia sozial eta ekonomikoa indartu, ekoizpen-ehuna suspertu, SARS-CoV-2aren pandemiak eragindako krisialdiaren ondoriozko gizarte-inpaktua arindu eta eraldatze ekologiko eta digitala sustatu nahi da.

2. Planak zeharkako ardatz hauek izango ditu: trantsizio ekologikoa, eraldatze digitala, genero-berdintasuna eta kohesio soziala, ekonomikoa eta lurraldekoa.

3. Hona planaren edukia:

a) Planaren helburu orokorrak, oinarriko arkitektura eta ekimen nagusiak.
b) Aurreikusitako erreformen eta inbertsioen deskribapena, baita planaren alderdi ekologiko eta digitalen deskribapena ere. Mugarriak, helburuak eta egutegia. Finantzaketak-iturriak eta inbertsioak.

c) Plana inplementazioa eta osagarritasuna: beste ekimen batzuekiko bateragarritasuna, finantzaketaren osagarritasuna, planaren ezarpena, kontrol- eta auditoretza-mekanismoak.

d) Planaren inpaktu orokorra: irismena, inpaktu makroekonomikoa, genero-inpaktua, errentaren banaketan eta eskualdeen konbergentzian duen inpaktua eta trantsizio ekologikoan eta eraldatze digitalean duen inpaktua.

13. artikulua. *Plana egitea eta onartzea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana Ministro Kontseiluak onartuko du, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak proposatuta, hargatik eragotzi gabe Europar Batasuneko araudiaren arabera aldaketaren bat egin behar izatea. Aldaketarik egin behar bada, onartzeko prozedura berbera erabiliko da.

2. Planaren hasierako lanketan, autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei entzungo zaie, bai eta estatuko enpresaburu-elkarte eta sindikatu nagusiei ere.

II. KAPITULUA

Gobernantza-egiturak

14. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana koordinatu eta zuzentzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordea sortzen da.

2. Hona Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeko kideak:

- a) Gobernuko presidentea; batzordeburua izango da.
- b) Gobernuko presidenteordeak.
- c) Gobernuko ministroak.
- d) Ekonomiako eta Enpresak Babesteko estatu-idazkaria.
- e) Ogasuneko estatu-idazkaria.
- f) Aurrekontuen eta Gastuen estatu-idazkaria.
- g) Gizarte Eskubideen estatu-idazkaria.
- h) Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoaz arduratzen den agintaritzaren errege lege-dekretu honen 20. artikulua araberaren arabera.
- i) Gobernuko Lehendakariaren Kabineteko Gai Ekonomikoetako eta G20ko Saileko arduraduna; Batzordeko idazkari lanak egingo ditu.

3. Hauek izango dira Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordearen eginkizunak:

- a) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana garatzeko eta egikaritzeko jarraibide politiko orokorrak ezartzea, Ministro Kontseiluak onartu ondoren.
- b) Planaren jarraipen estrategikoa egitea.
- c) Ministro Kontseiluak agintzen dizkion bestelako jarduerak edo eginkizunak gauzatzea.

15. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoa.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak asistentzia eta laguntza teknikoa emateko organo bat izango du: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoa.

2. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak finkatuko du zer kidek osatuko duten Komite Teknikoa. Horretarako, irizpide teknikoei erreparatuko die, objektibotasunez, kontuan hartuta Europako funtsen eta laguntzen kudeaketaren arloan zer eskumen eta eskarmentu duten, eta eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako profil profesionalak edo organikoak dituzten. Kideek Estatuaren Administrazio Orokorreko enplegatu edo zuzendaritza-organoko izan behar dute. Nolanahi ere, gehienez hogeita hamar kide izango ditu, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako arauen arabera jardungo du.

3. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeari laguntza teknikoa eskaintzea, eginkizunak betetzeko behar duen dokumentazio guztia emanez.
- b) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak eskatzen dizkion azterlanak, txostenak eta analisiak egitea, baita Plana egikaritzeko baliagarritzat jotzen dituenak ere.
- c) Laguntza teknikoa eskaintzea Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoaz arduratzen den agintaritzari (23. artikuluan zehaztua), bere eginkizunak bete ditzan.
- d) Planaren gobernantza-, jarraipen- eta egikaritze-organoko eta -unitateei informazioa eta laguntza ematea.

e) Lizitazio-agiri, dirulaguntzen edo laguntzen deialdietarako oinarrien edo hitzarmenen orientabideak, prozedura-eskuliburuak edo ereduak onartzea, edo bestelako dokumentuenak, baldin eta efikazia- edo efizientzia-arrazoiengatik kudeatzaileei argigarri gisa balio liezaieketela uste bada.

f) Tresna informatikoak edo digitalak eskuratzeko gomendioak edo orientabideak onartzea.

g) Plangintza estrategikoko tresna formulatzeko eredu bat onartzea, errege legedekretu hau kudeatzeko.

h) Jarraipena egitea, tresna horretako proposamen, irizpide edo gomendioak betetzen diren ikusteko.

4. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoak, berezkoak dituen eginkizunak betetzeko, lankidetzak eskatu ahalko dio Estatuaren Administrazio Orokorreko edozein organori.

16. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren jarraipena egitea.*

1. Gobernuko Lehendakariaren Kabineteko Gai Ekonomikoetako eta G20ko Sailak egingo du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren jarraipena, Gobernuko presidenteari informazioa emateko, zuzenean eta etengabe.

2. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak protokolo bat onartuko du, Komite Teknikoak txostena egin ondoren, Gobernuko Lehendakariaren Kabineteko Gai Ekonomikoetako eta G20ko Sailari Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskumena duten ministerioei buruzko informazioa emateko, jarraipen politikoa egin dezan.

3. Gobernuko Lehendakariaren Kabineteko Gai Ekonomikoetako eta G20ko Sailak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordearen idazkari jardungo du, eta, halaber, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoaren idazkari iraunkorra izango da.

17. artikulua. *Parte hartzeko foroak eta goi-mailako taldeak.*

Ministerioek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordearekin lotuta dauden parte hartzeko foro eta goi-mailako talde zeharkako zein horizontalak sortu eta sustatu ahalko dituzte, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko agente garrantzitsuek parte hartzeko, elkarrizketa ahalbidetzeko, helburuak arrakastaz betetzeko orientabideak edo gomendioak eskuratzeko, eztabaida eta sinergiak sortzen laguntzeko eta gobernantza errazteko.

18. artikulua. *Parte-hartze soziala.*

Parte hartzeko foro espezifiko bat eratzen da, enpresaburu-elkarteekiko eta sindikatuekiko elkarrizketa soziala bultzatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana garatzeari eta egiturazko neurriak hartzeari buruz.

19. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Konferentzia Sektoriala.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Konferentzia Sektoriala Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzak-organoa da, autonomia-erkidegoek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuetan duten parte-hartzea behar bezala bideratzeko eta planaren inplementaziorako lankidetzak- eta koordinazio-mekanismoak eta -bideak ezartzeko.

2. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Konferentzia Sektoriala hauek osatuko dute: Ogasuneko ministroak (konferentziaren buru) eta gai bakoitzean eskudun diren autonomia-erkidego bakoitzeko eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoetako sailburuek.

Estatuko Administrazioaren ordezkari izango dira Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko estatu-idazkaria, Aurrekontuen eta Gastuen estatu-idazkaria eta Ekonomiako eta Enpresak Babesteko estatu-idazkaria.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Konferentzia Sektorialak bileretara deitu ahalko ditu udalerrien eta probintzien Espainiako federazioak izendatzen dituen toki-administraziooko ordezkariak, federazio hori baita ezarpen handiena duen Estatuko toki-erakundeen elkartea.

3. Europako Funtsen Koordinatzaileen Batzordeak Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoetako gai horretako arduradunak bilduko ditu, eta bilerak prestatzen eta haien jarraipena egiten lagunduko dio Konferentziari. Konferentziak berak ezarriko ditu haren osaera eta funtzionamendu-arauak, barne-antolamendurako eta -funtzionamendurako erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

4. Konferentziak barne-antolamendurako eta -funtzionamendurako erregelamendu bat prestatuko du, behar bezala funtziona dezan.

5. Konferentziak, erabakiak hartzerakoan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 151. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

20. artikulua. *Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoaz arduratuko den agintaritza.*

1. Europako funtsen arloan eskumena duen Ogasun Ministerioko zuzendaritza-zentroak agintaritza arduradun gisa jardungo du Europako erakundeen aurrean, Europako araudian ezarritakoari jarraituz, eta, horretarako, legez eta erregelamenduz ezarrita dituen eskumenak garatuko ditu.

2. Helburu hori betetzeko, zuzendaritza-zentroak eginkizun hauek izango ditu:

a) Europako Batzordeari dagokionez, suspertze- eta erresilientzia-planen erantzukizun orokorra edukitzea eta Europako Batzordearen harremanetarako erakundea izatea («koordinatzailea»).

b) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean parte hartzen duten ministerio, organismo publiko, autonomia-erkidego eta toki-erakundeekiko eta Estatuko eta Batasuneko gainerako entitateekiko koordinazioa ziurtatzea.

c) Planaren mugarren eta helburuen inguruko aurrerapenak gainbegiratzea.

d) Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoari buruzko araudian aurreikusitako txostenak, finantza-laguntza ordaintzeko eskabideak eta, hala badagokio, araudian ezarritako mailegu-tartea aurkeztea. Hori guztia egindako kontrolen emaitzan oinarrituko da, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoari buruzko araudiak ezarritako baldintzetan.

e) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoa gidatzea, eta haren lanak koordinatzea.

f) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Konferentzia Sektorialaren idazkaritza teknikoko eginkizunak betetzea.

3. Agintaritza arduradunak bere eginkizunak behar bezala betetzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak izango ditu.

21. artikulua. *Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa kontrolatzeko agintaritza.*

1. Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak bere gain hartuko ditu Europako araudiak Suspertzerako Europako Bitartekoaren kontrol-agintaritzari esleitzen dizkion eginkizunak eta eskumenak.

2. Bereziki, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkio Europako araudiak exijitzen dituen funtsen diseinurako eta kontrolerako jarduketak. Halaber, Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko beste edozein kontrol-organori esleitutako kontrolen koordinazioa bere gain hartuko du, baita Estatuko eta Batasuneko

erakundeekiko harremanak bideratzea ere, kontrol-sistema efikaz eta efizientea bermatzeko.

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak, egitura-funtsen arloko auditoretza-agintaritzak gisa dituen eginkizunetaz gaineko eginkizun gehigarri horiek betetzeko, Europako funtsen kudeaketan parte hartzen duten Estatuko entitate publikoen informazio-sistemak sartzeko askatasuna izango du, eragiketen ebaluazio jarraitua bermatzeko. Era berean, Europako funtsak betearazteko jarduketak jasotzen dituen beste edozein erregistrotararen ere sarbidea izango du. Entitate publiko edo pribatu guztiak behartuta egongo dira eginkizun horiek betetzean eskatzen zaien informazioa ematera.

3. Bestalde, Iruzuraren aurkako Koordinazioko Zerbitzu Nazionalak, Europar Batasunaren finantza-interesak iruzurretik, ustelkeriatik edo legez kanpoko beste edozein jardueratik babesteko eginkizunak betetzeko, iruzurra prebenitzeko, detektatzeko eta ikertzeko beharrezkoak diren lanak sustatuko ditu, eta, horretarako, kudeaketa- eta kontrol-organoekin harremanetan izango da.

4. Kontrol-agintaritzak behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak izango ditu, eginkizunak behar bezala betetzeko.

22. artikulua. *Gorte Nagusiei kontuak ematea.*

Gobernuak, hiru hilean behin, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren aurrerapenen berri emango dio Gorte Nagusien Europar Batasunerako Batzorde Mistoari.

III. KAPITULUA

Kudeaketa publikorako tresnak

1. atala. *Plangintza estrategikoa*

23. artikulua. *Kudeaketarako plangintza estrategikoko tresna.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuak kudeatzeaz arduratzen diren ministerio-sailek kudeaketarako plangintza estrategikoko tresna bat prestatuko dute bi hilabeteko epean, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

2. Tresna hori saileko idazkariordetzaren titularrak egingo du, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoak onartuko duen eredia oinarritzat hartuta, eta errege-lege dekretu honen eremu objektiboari lotutako jarduketak, zereginak eta proiektuak soilik kudeatuko ditu. Tresnak eduki hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) Sailak esleitutako edo kudeatutako jarduketei eta proiektuei dagokienez, sailak eta hari atxikitako organismo publikoek kudeatu behar dituzten eta Europako funtsak xurgatzeari lotuta dauden inbertsioen eta gastuen zenbatespena.

b) Sailari agindutako helburu eta jarduketaren deskribapena, laneko zereginak eta lan-kargak edo horien gehikuntza azaltzeko.

c) Sailaren eta haren organismo publikoen baliabideak berrantolatzeke proposamen zehatza. Horrez gain, b) letran aurreikusitakoa kudeatzearekin zuzenean lotutako beharrezko materialak, antolaketakoak eta langileenak modu korrelatiboan handitu badira, horren berri eman behar da. Beharrezkoa bada, behin-behineko administrazio-unitateen eskabidea aurkeztuko da, errege lege-dekretu honen 32. eta 33. artikuluen arabera.

d) Prestakuntza-proposamen bat, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden proiektuak edo zereginak kudeatzeko ardura duten unitateei atxikitako langileentzat.

3. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordearen Komite Teknikoak gida metodologikoa bat emango die kudeaketarako plangintza estrategikoko tresna prestatuko duten ministerio-sailei.

4. Ministerio-sailak prestatuko du kudeaketarako plangintza-tresna, eta, ondoren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeari aurkeztuko zaio, onar dezan.

Baina, aurretik, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak administrazio-antolaketari eta langileen egiturei buruzko txostena egingo du, eta Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak, aldiz, aurrekontuen, langile-kostuen eta Europako funtsen araudira egokitzeari buruzko txostena (10 egun izango dituzte txostenak egiteko).

5. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak kudeaketarako plangintza estrategikoko tresna onartu ondoren, ministerio-saileko idazkariordetzaren titularrak ahalik eta azkarren sustatuko ditu egituren, baliabideen, bitartekoen, langileen eta aurrekontu-kudeaketaren arloetan beharrezkoak diren ekintzak, bere eskumenen eremuan tresna abian jartzeko.

6. Efikazia- edo efizientzia-arrazoiak direla-eta plangintza estrategikoko elementuren edo jardueraren bat kanpoan jakinarazi behar bada, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuko dira publikotasun instituzionalaren arloan.

7. Era berean, Europako baliabideen bidez gauzatutako finantzaketaren publikotasunari dagokionez Europar Batasuneko araudiak eskatzen dituen elementu guztiak publikoki komunikatu beharko dira.

24. artikulua. *Antolaketa.*

1. Organoak plangintza estrategikoko tresnaren arabera antolatuko ditu bitartekoak eta baliabideak.

2. Efikazia eta efizientziako arrazoiengatik, behin-behineko administrazio-unitateak eratu ahaliko dira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan Europako funtsen kontura finantzatu daitezkeen proiektuak kudeatu eta egikaritzeko, eta horietan zentralizatuko da planeko proiektuen eta ekintzen kudeaketa.

3. Behin-behineko administrazio-unitate horiek idazkariordetzaren titularrak proposatuta eratuko dira, eta epe jakin bat izango dute, proiektuak garatzeko edo plana egikaritzeko epearekin bat etorriko dena. Aipatutako epea igarota, unitate hori hornitzeko erabiliko diren saileko edo organismoko lanpostuen zerrendako lanpostuak jatorrizko unitateari berresleituko zaizkio.

Unitate horien maila lanpostuen zerrendan zehaztutakoa izango da.

Unitate horiek sortzeko proposamena kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnaren parte izango da, eta tresna hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeari aurkeztuko zaio, onar dezan.

4. Aldi baterako unitate horietako lanpostuak errege lege-dekretu honen 33. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira. Ahal dela, Europako funtsekin lotutako proiektuen kudeaketan esperientzia zuzena edo zeharkakoa duten enplegatu publikoek beteko dituzte lanpostuak. Horrez gain, modu subsidiarioan, aldi baterako estatutupeko langileek, bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako lan-kontratadun langileek beteko dituzte.

25. artikulua. *Kudeaketarako jarraibideak.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan Nazionalerako Komite Teknikoak orientabide eta gomendio komunak ezarriko ditu errege lege-dekretu honen 25. artikuluan jasotako plangintza estrategikoko tresnan jasotzen diren ekintzak inplementatzeko, eremu hauetan:

- a) Jardunbide onak, gomendioak edo ereduak ezartzea.
- b) Digitalizaziorako neurriak hartzea.
- c) Foro teknikoak deitzea.
- d) Prestakuntza-neurriak hartzea.
- e) Zerbitzu bereziak ematen dituzten langileen jarduna ebaluatzeko helburuak edo adierazleak ezartzea.

2. Idazkariordetzaren titularrak, bere eskumenen esparruan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Komite Teknikoak onartutako gomendioak, orientabideak edo ereduak aplikatzeko jarraibide egokiak emango ditu, aurreko apartatuan ezarritakoaren

arabera, baita kudeaketa hobe egiteko egokitzat jotzen duen beste edozein ere, eremu hauetan bereziki:

- a) Lehentasunezko zereginak edo ekintzak zehaztea.
- b) Ekintzak edo proiektuak zuzentzeko ardura izango duten unitateak izendatzea.
- c) Bitartekoak eta baliabideak berrantolatzea.
- d) Enkarguak egiteko lantaldeak sortzea.

26. artikulua. *Prestakuntza.*

1. Behar diren neurriak hartuko dira enplegatu publikoei kudeaketa publikoa gauzatu eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden zereginak betetzeko bereziki garrantzitsuak diren gaien inguruko prestakuntza emateko.

Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak eta Ikerketa Fiskalen Institutuak, beren eskumenen esparruan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordearen orientabideekin bat etorri, neurri egindako prestakuntza emango dute Plana egikaritzeko, besteak beste, plangintza estrategikoari, lizitazio publikoari, dirulaguntzak eta laguntzak emateko prozedurei, finantza- edo aurrekontu-kudeaketari, hitzarmenei eta lankidetzak publiko-pribatuari dagokienez.

2. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotutako prestakuntza konpetentzietan oinarrituko da, eta helburuak betetzera eta arazoak konpontzera bideratuta egongo da.

3. Prestakuntza horrek aurrekontu-finantzaketa egokia izango du, ministerio-sailen aurrekontuan aurreikusitakoaz gain, eta lehentasuna izango du prestakuntza-planetan, kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnan ezarritakoaren arabera.

2. atala. *Giza baliabideen kudeaketa*

27. artikulua. *Pertsonen kudeaketa.*

1. Organismo publikoetako langileen arloan eskumenak dituen ministerio-saileko edo organoko idazkariordetzaren titularraren lehentasuna izango da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko esleitzen diren langileak kudeatzean sailaren zerbitzura dauden pertsonen talentua aprobetxatzea.

2. Errege lege-dekretu honen I. tituluko 3. artikuluan zerrendatutako kudeaketa-printzipioekin eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak) 81. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri, organismo publikoetako langileen arloan eskumenak dituen ministerio-saileko edo organoko idazkariordetzaren titularrak behar diren ekintzak bideratuko ditu beharrezko baliabideak mobilizatzeko eta birbanatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsen kudeaketa eta xurgapena arintzeko.

3. Sailak edo organismoak onartutako plangintza estrategikoko tresnaren esparruan, neurriak hartuko dira langileen gaikuntza sustatzeko eta haien lana aitortzeko (bai ahalegin kolektiboa, bai indibiduala).

28. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko behin-behineko administrazio-unitateak giza baliabideez hornitzea. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuak kudeatzeko unitateak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, lanpostuen zerrenden eredu bat onartuko da, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren eta Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren baterako ebazpenaren bidez.

2. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak jarraibide egokiak emango ditu, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko behin-behineko administrazio-unitateetako lanpostuak arin eta lehentasunez bete daitezkeen.

29. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko aldi baterako unitateetan lanpostuak betetzeko irizpideak.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuen kudeaketa esleituta duten sailtako idazkariordetzaren titularrak saileko edo organismoko pertsonen gaitasunak eta talentua aztertuko ditu, eta analisi hori kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnan jasoko da.

2. Dauden baliabideak birbanatu eta aprobetxatzeari emango zaio lehentasuna, kudeaketa arintzeko eta Europako funtsen xurgapena errazteko. Baliabiderik ez badago, funtzio publikoaren arloko araudian ezarritako lanpostuak betetzeko gainerako moduak baliatzea ere aztertuko da, baita lanpostuak aldatu edo berriak sortzea ere, indarrean dagoen aurrekontu-araudiarekin bat etorri eta finantzaketa egoki eta nahikoa izanik.

3. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordearen Komite Teknikoak aholkularitza eta lankidetzak eskainiko dizkie ministerio-sailei, kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnan jaso behar diren gai horri buruzko diagnostikoa eta proposamenak egiteko.

30. artikulua. *Langileak ministerio-sailetan eta funtsak kudeatzeaz arduratzen diren organismoetan berrantolatzea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuen kudeaketak eragindako lan-karga gehitzearekin lotutako langile-premiak, ahal dela, proiektu horiek kudeatzeaz arduratzen den ministerio-saileko edo organismoko langileek beteko dituzte.

2. Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuak kudeatzeaz arduratzen diren ministerio-sailetan giza baliabideen arloko eskumenak dituen organoaren titularrak ahalik eta azkarren bultzatuko ditu pertsonak eta lanpostuak birbanatzeko behar diren ekintzak, Europako funtsen xurgapena eta betearazpena arindu ahal izateko.

3. Estatuaren Administrazio Orokorreko funtzionario zibilek lanpostuak betetzeari eta haien lanbide-sustapenari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, lanpostuak betetzeko modu hauek erabiliko dira, ahal dela:

- a) Giza baliabideak birbanatzea.
- b) Giza baliabideak berresleitzea.
- c) Eginkizunak aldi baterako esleitzea.

4. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzari gaikuntza ematen zaio, ebazpen bidez, langileak birbanatzeko eta berresleitzeko interpretazio-jarraibideak eman ditzan, berrantolatu behar diren ministerio-sailen berrantolaketa arindu ahal izateko.

31. artikulua. *Lanaldi partzialeko eginkizunak esleitzea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuen kudeaketa-eremuan soilik, proiektu horiek kudeatzeaz arduratzen diren sailtako idazkariordetzaren titularrak erabaki ahalko du saileko funtzionarioei lanaldi partzialeko eginkizunak esleitzea, atxikipena, lanpostua eta pertsona aldatu gabe.

2. Lanaldi partzialeko eginkizunak esleitu daitezke, Estatuaren Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorrean (martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartua) lanpostuak betetzeko jasotzen diren moduetatik zeinahi erabilita ere.

32. artikulua. *Lanpostuak sortzea eta aldatzea.*

1. Salbuespen gisa, lanpostuak sortzea edo aldatzea ezinbestekoa bada, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsekin

finantzatu daitezkeen proiektuen kudeaketarekin zerikusi zuzena duten eginkizunak dituzten lanpostuak sortu edo aldatu ahalko dira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak ministerio-saila edo organismoa kudeatzeko onartzen duen plangintza estrategikoko tresnan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Giza baliabideen arloan eskumenak dituzten organoek lehentasuna emango diote proposamen horietatik sortutako espedienteak izapidetzeari, Ordainsarien Ministerioarteko Batzordearen batzorde betearazleari helarazteko.

33. artikulua. *Enplegu publikoaren eskaintza eta lanpostu berriak betetzea.*

1. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak, enplegu publikoaren eskaintzatik sortutako lanpostu berriak esleitzean, lehentasuna emango die Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuak kudeatzeaz arduratzen diren ministerio-sailen beharrei, eta arreta berezia jarriko du errege lege-dekretu honen 20. eta 21. artikuluetan ezarritako eginkizunak beren gain hartzen dituzten zuzendaritza-zentroetan.

2. Aurreko apartatuan aipatutako langile-premiak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak onartutako kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnan adieraziko dira.

34. artikulua. *Aldi baterako estatutupeko langileak eta bitarteko funtzionarioak izendatzea, eta iraupen mugatuko kontratuak dituzten lan-kontratudun langileak kontratatzea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden funtsak kudeatzeak lan-karga handitu duenez, Europako funtsak kudeatzeaz arduratzen diren ministerio-sailek eta organismoek beren plantillak indartu ahalko dituzte aldi baterako estatutupeko langileak, bitarteko funtzionarioak edo iraupen mugatuko lan-kontratudun langileak izendatuz, kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnan, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginean eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

2. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak eta Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak, Europako funtsak kudeatzeko planen esparruan, lehentasuna emango diote iraupen mugatuko kontratuen baimenak izapidetzeari eta aldi baterako estatutupeko langileak eta bitarteko funtzionarioak izendatzeari, betiere aurrekontuen eta giza baliabideen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Langile horien izendapenak eta kontratuak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko behar den denborarako bakarrik formalizatuko dira.

Halaber, errege lege-dekretu honetan jasotako kudeaketa estrategikoko tresnaren eremuan langileak berresleitu direla-eta plantilla murriztu den gainerako unitateetan, lehentasuna emango zaio aldi baterako estatutupeko langileak edo bitarteko funtzionarioak izendatzea edo behin-behineko lan-kontratudun langileak kontratatzea xede duten espedienteak izapidetzeari.

3. atala. Digitalizazioa eta bitarteko materialak

35. artikulua. *Kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnaren kudeaketa digitalizatzeko bitartekoak.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko egingo diren deialdietan parte hartzeko eskabideak ministerio-sailen eta organismo eskudunen egoitza elektronikoen bidez izapidetuko dira.

2. Kontratazio-organoen plana egikaritzearekin eta plana ezartzeko aurreikusitako lizitazio-prozesuekin lotutako informazio guztia zabaldu ahalko dute, gardentasuna eta agente ekonomiko interesdunen konkurrentzia ahalik eta handienak izan daitezzen, aplikatu beharreko legeriaren arabera egokiak diren prozedurak formalki sustatu aurretik.

36. artikulua. *Europako funtsen kudeaketarekin lotutako kontratazio-prozedurak arintzeko eta digitalizatzeko baliabideak.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana ezartzen laguntzeko, hura egikaritzearekin lotuta dauden proiektuak kudeatzeaz arduratzen diren ministerio-sailek eta organismoek urteko dokumentu bat onartuko dute, errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta bi hilabeteko epean. Urteko dokumentu horretan, plana abian jartzeko behar diren kontratuen programazioa jasoko da, bai funtsak betearazteari buruzko kontratuen programazioa, bai funtsak kudeatzeko kontratu osagarriena.

2. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuak kudeatzeaz arduratzen diren organismo publikoen zerbitzu komunak arloan eskumenak dituen organoko edo ministerio-saileko Idazkariordetzaren titularrak lehentasuna emango dio Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuen kudeaketarekin lotutako kontratazio-prozedurak digitalizatzeari eta arintzeari.

IV. TITULUA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketaren arloko berezitasunak

I. KAPITULUA

Aurrekontuen kudeaketaren eta kontrolaren arloko berezitasunak

37. artikulua. *Kreditu lotesleak eta kudeaketa-kontrola.*

1. Aurrekontu-atal bakoitzaren 50. zerbitzuan —«Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa»— zuzkitutako kredituak eta Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorren Legearen 1. artikuluko a) letraren 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren entitateen gastu-aurrekontuetan kontsignatuta dauden Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoarekin lotutako gainerako kredituak beren arau-esparruaren arabera hautagarriak diren jarduketak finantzatzeko baino ezingo dira betearazi. Aurreko ondoreetarako, Gobernuak plan horri lotutako kredituen kudeaketari aplikatu beharreko irizpideak finkatuko ditu, planean ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko.

2. Gobernuak kreditu horiek atalen artean transferitzea erabaki ahalko du, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa behar bezala xurgatzen dela bermatzeko.

3. 2021erako Aurrekontu Orokorren Legeak 1. artikuluan a) letraren 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatutako entitateetan, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanisмотik eta REACT-EU programatik datozen eta Estatuako Administrazioarengandik transferentzia bidez jasotzen diren diru-sarrerak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan sartzen diren proiektuak edo ekintza-ildoak ordaintzeko aurrekontu-kredituak finantzatzera lotuta daude legez. Gastua egiten ez bada, entitate horiek Altxorrari itzuli beharko dizkiote jaso dituzten baina esleitutako helburura bideratuko ez dituzten funtsak. Jarraipena egin ahal izateko, urteko kontuak egitean, ukitutako diruzaintzako geldikinaren barruan, jarduketa horiek ordaintzera bideratutako zatia bereiziko da.

4. Hala aurrekontu zenbatetsia duten Estatuako organismo publiko eta Estatuako sektore publikoko gainerako entitateetan, nola autonomia-erkidego, toki-korporazio eta toki-korporazioen mendeko entitateetan, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanisмотik eta REACT-EU programatik datozen eta Estatuako Administrazioarengandik transferentzia bidez jasotzen diren diru-sarrerak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan sartzen diren proiektuak edo ekintza-ildoak finantzatzera lotuta daude legez, planean zehaztuta dagoen xehetasun-mailarekin. Gastua egiten ez bada edo ezarritako helburuak guztiz edo partzialki betetzen ez badira, entitate horiek Altxor Publikoari itzuli beharko dizkiote jasotako funtsak, osorik edo partzialki, kasuan-kasuan. Ondore horietarako, itzulketa-prozedura Ogasuneko ministroaren agindu bidez arautuko da.

5. Entitate pribatuek aipatutako bi tresna horien bidez kudeatzen dituzten proiektuak finantza daitezzen, planean aurreikusitako helburuak bete beharko dira, eta, halaber, aintzat hartuko da helburuei lotutako kostuen zenbatespena. Gastua egiten ez bada edo ezarritako helburuak osorik edo partzialki betetzen ez badira, jaso dituzten funtsak itzuli beharko dituzte entitate horiek. Ondore horietarako, itzulketa-prozedura Ogasuneko ministroaren agindu bidez arautuko da.

38. artikulua. *Aurrekontu-aldaketen arloko eskumen espezifikoak.*

Gobernuari dagokio, Ogasuneko ministroak proposatuta, 50. zerbitzuari —«Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa»— eta 51. zerbitzuari —«Kohesiorako eta Europako lurraldeetarako suspertzeko laguntza (React-EU)»— eragiten dieten atalen arteko kreditu-transferentziak xedatzeko eskumen espezifikoa. Kreditu-transferentzia horiei ez zaizkie aplikatuko Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 52.1 artikuluan jasotako murrizketak.

Ministerio-sailtako titularrei dagokie baimentzea, nor bere aurrekontuetan, 50. zerbitzuaren barruan —«Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa»— zuzkitutako kredituen eta Osasun Ministerioak 51. zerbitzuaren barruan —«Kohesiorako eta Europako lurraldeetarako suspertzeko laguntza (React-EU)»— zuzkitzen dituen kredituen arteko transferentziak.

Era berean, Estatuko organismo autonomoetako eta aurrekontu mugatzailea duten Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako entitateetako presidente edo zuzendariei dagokie, Gizarte Segurantza osatzen duten entitateak alde batera utzita, beren gastu-aurrekontuetan kontsignatuta eta Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoarekin lotuta dauden kredituen arteko transferentziak baimentzea.

39. artikulua. *Gastu-espeditenteen alde aurretiko izapidetzea.*

Hurrengo ekitaldietako gastu-espeditenteen alde aurretiko izapidetzea egiteko aukera ezartzen da, gastu-konpromisoa formalizatzeko fasera arte, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanisмотik eta REACT-EU programatik datozen funtsekin finantzatzen den edozein espeditentetarako, xede horretarako erabilitako tresna edo negozio juridikoa edozein dela ere.

40. artikulua. *AL Oren 21.3 artikuluan ezarritako ordainketa aurreratuen muga handitzea.*

Errege lege-dekretu honen babesean izapidetzen diren eta hitzarmenei eta enkarguei dagozkien gastu-espeditenteetan, jaso beharreko zenbateko osoaren % 50era igotzen da Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 21.3 artikuluan ezarritako muga, alegia, mota horretako negozioetan aurreikusten diren prestazioak eman eta justifikatu aurretik konprometitutako funtsak alde aurretik ordaintzeko muga.

Gainera, errege lege-dekretu honen babesean izapidetzen diren gastu-espeditente jakin batzuen araudiak ez du baimentzen mota horretako negozioetan aurreikusten diren prestazioak eman eta justifikatu aurretik konprometitutako funtsak alde aurretik ordaintzea, edo mugatu egiten du ordaindu daitekeen kopurua; bada, horrelakoetan, jaso beharreko zenbateko osoaren % 50 gehienez ordaindu ahalko da aurretik.

41. artikulua. *Urte anitzeko gastu-konpromisoak.*

1. Gastuak baimentzen diren ekitaldiaren ondorengo ekitaldietara luzatuko diren gastu-konpromisoak hartu ahalko dira, ondoren zerrendatutako kredituen kontura, baldin eta hurrengo zenbakian ezartzen diren mugak eta urteko kuotak gainditzen ez badituzte:

a) Estatuaren aurrekontuan atal bakoitzaren 50. zerbitzuan —«Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa»— zuzkitutako kredituak.

b) Aurrekontu mugatzailea duten gainerako entitateen gastu-aurrekontuetan kontsignatuta eta Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoarekin lotuta dauden kredituak.

c) Osasun Ministerioak 51. zerbitzuan —«Kohesiorako eta Europako lurraldeetarako suspertzeko laguntza (React-EU)»— zuzkitutako kredituak.

2. Gastuak gehienez ere bost ekitalditan aplikatu ahalko dira. Ondorengo ekitaldietako bakoitzari egotzitako gastuak ezingo du gainditu eragiketari dagokion aurrekontu-kredituari ehuneko hauek aplikatuta lortzen den zenbatekoa: gastuak baimendu eta ondo-ondoko ekitaldian edo gastuak baimendu eta bi ekitaldira, % 100; hiru ekitaldira, % 70; eta lau eta bost ekitaldira, % 60 eta % 50.

3. Gobernuak, bereziki justifikatutako kasuetan, aurreko ehunekoak aldatzea, urteko kuoten kopurua handitzea edo, hasierako krediturik ez dagoenean, hurrengo ekitaldietan betearazi beharreko gastu-konpromisoak hartzea erabaki ahalko du. Ondore horietarako, Ogasuneko ministroak, dagokion ministerioaren ekimenez, proposamena helaraziko dio Ministro Kontseiluari, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak txostena egin ondoren.

4. Artikulu honetan aipatzen diren konpromisoak bereiz kontabilizatu beharko dira.

42. artikulua. *Kreditu-txertaketak.*

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 58. artikulua a) apartatuan ezarritako ondoretarako, ekitaldiko kredituetan sartu ahalko dira atal bakoitzaren «Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa» izeneko zerbitzuan zuzkitutako gastu-konpromisoak babesten dituzten kredituen geldikinak, bai eta aurrekontu mugatzailea duten entitateen gastu-aurrekontuetan kontsignatuta eta Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoarekin lotuta dauden gainerako kredituak eta Osasun Ministerioak 51. zerbitzuan —«Kohesiorako eta Europako lurraldeetarako suspertzeko laguntza (React-EU)»— zuzkitutako kredituak ere.

Estatuaren aurrekontuari eragiten dioten aurreko kreditu-txertaketei ez zaie aplikatuko, finantzaketari dagokionez, azaroaren 26ko 47/2003 Legeak 50. eta 58. artikuluetan ezarritakoa, eta zor publikoaren bidez finantzatuko dira.

Organismo autonomoen, Gizarte Segurantzako entitateen eta gastu-aurrekontu mugatzailea duten gainerako entitateen aurrekontuko kreditu-txertaketak aurreko ekitaldiaren amaieran organismoaren aurrekontuan aplikatu ez den diruzaintzako geldikinaren zatiaren kontura bakarrik egin ahalko dira.

43. artikulua. *Ekitaldia ixteko egutegia malgutzea.*

1. Gastuen eta aurrekontuzkoak ez diren eragiketen aurrekontua ixteko eragiketen egutegia urtero arautzen duten aginduek epe bereziak ezarri ahalko dituzte 50. zerbitzuari —«Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa»— lotutako kredituetarako eta Osasun Ministerioak 51. zerbitzuaren barruan —«Kohesiorako eta Europako lurraldeetarako suspertzeko laguntza (React-EU)» — zuzkitutako kredituetarako.

2. Aurrekontua luzatzen den kasuetan, aurreko apartatuan aipatzen diren kredituak betearazteko, ezingo da exijitu Ogasun Ministerioak seihileko egutegia baimentzeko baldintzak betetzea, ez eta hasierako kreditu erabilgarriaren % 50a ez gainditzea ere.

44. artikulua. *Autonomia-erkidegoei lurraldeka banatu behar zaizkien kredituak betearaztea.*

Europar Batasunaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana finantzatzeko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan berariaz sortutako zerbitzuan kontsignatu diren eta autonomia-erkidegoei lurraldeka banatu behar zaizkien kredituak betearazteko,

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 86. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, berezitasun hauekin:

a) Azaroaren 26ko 47/2003 Legeak 86.2 artikulua bosgarren arau xedatutakoaren ondoretarako, kreditu guztiak behingoan ordaindu ahalko zaizkio autonomia-erkidego bakoitzari, dagokion konferentzia sektorialean kredituen behin betiko banaketa onartu ondoren.

b) Azaroaren 26ko 47/2003 Legeak 86.2 artikulua seigarren arau xedatutakoaren ondoretarako, autonomia-erkidego bakoitzari transferitu beharreko zenbatekotik ez dira deskontatuko ekitaldi bakoitzaren amaieran kreditu horietarako sortzen diren konprometitu gabeko funtsen geldikinak, baldin eta autonomia-erkidegoen esku badaude; funtsak zer helbururekin transferitu ziren, hari eutsiko diote.

Geldikina duen gastua edo jarduketa hurrengo ekitaldiko aurrekontuan jasota ez badago, hura, lehenik eta behin, aurreko ekitaldiaren amaieran ordaintzeke zeuden obligazioak gauzatzera bideratuko da, eta konprometituta ez dagoen soberakina Estatuari itzuliko zaio.

Konferentzia sektorialen esparruan eta Susperraldirako Plan Nazionalean jasotako aurreikuspenekin bat, autonomia-erkidegoek kudeatzen dituzten urte anitzeko dirulaguntzetarako funtsak banatzeko irizpideak onartuko dira (ALOren 86. artikulua).

45. artikulua. *Next Generation EU planetako funtsen aplikazioa inplementatzeko espedientei aplikatu beharreko alde aurretiko kontrol-araubidea.*

Espediente horiei aplikatu beharreko kontu-hartzailtzako eginkizuna Aurrekontuen Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera beteko da, arau hauei jarraituz:

1. Aurrekontuen Lege Orokorrak 150.2 artikulua a) letrako egintza guztien aurretiazko fiskalizazioa eta b) letran aurreikusitako betebeharrak onartzearen faseko aurretiazko kontu-hartzea oinarritzeko betekizunen araubidea betez egingo dira, betiere egintza horiek kontu-hartzailtzaren mende badaude, espedienteetan aipatzen den gastu mota eta zenbatekoa edozein direla ere. Fiskalizazio-araubide orokorra ez da inola ere aplikatuko.

2. Funts hauen aplikazioa inplementatzeko espedienteek bete behar dituzten alderdi gehigarrietatik, Ministro Kontseiluak erabakitzen dituenak bakarrik egiaztatuko dira, Ogasuneko ministroak proposatuta eta Estatu Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak txostena egin ondoren, Aurrekontuen Lege Orokorraren 152.1 artikuluko g) apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik. Aipatutako funtsak kudeatzeko eta Europar Batasuneko erakundeek ezarritako jarraibideekin bat aplikatzen direla bermatzeko garrantzitsuak diren alderdiak egiaztatuko dira.

Ministro Kontseiluaren berriazko erabaki hori onartzen ez den bitartean, hauek izango dira Next Generation EU planetako funtsen kontura finantzatzen diren espedienteetan egiaztatu beharreko alderdi gehigarriak:

a) Aurrekontuen Lege Orokorrak 150.2 artikulua a) letran jasotako egintzen aurretiazko fiskalizazioan:

– Aurrekontuen Lege Orokorraren 152.1 artikuluan aipatutako egiaztapen orokorreko alderdiak betetzen diren.

– Zerbitzu Juridikoak txostena egin duen, aplikatu beharreko araudiaren arabera txosten hori nahitaezkoa den espedienteetan.

– Estatu Kontseiluak irizpena eman duen, aplikatu beharreko araudiaren arabera irizpen hori nahitaezkoa den espedienteetan. Txostena eta irizpena eginda, existitzen direla eta aldekoak direla bakarrik egiaztatuko da.

b) Betebeharrak onartzearen faseko aurretiazko kontu-hartzean (Aurrekontuen Lege Orokorrak 150.2 artikulua b) letran ezarria):

– Lege horrek 152. eta 147. artikuluetan kontu-hartzaitzako eginkizuna oinarritzko betekizunen araubidean betetzeari buruz ezartzen duena aplikatzen duten Ministro Kontseiluaren erabakietan jasota dauden gastu motei dagokienez, betebeharrak onartzearen faseko aurretiazko kontu-hartzean, egiaztapen orokorreko alderdiak eta erabaki horietan aurreikusten diren gainerako alderdiak kontrolatuko dira, baldin eta espediente horiei aplikatu beharreko araudiaren arabera horiek exijitzerik badago.

– Aipatutako Ministro Kontseiluaren erabakietan jasota ez dauden gastu motetarako, betebeharrak onartzearen faseko aurretiazko kontu-hartzean, Aurrekontuen Lege Orokorraren 152.1 artikuluan aipatzen diren egiaztapen orokorreko alderdiak bakarrik kontrolatuko dira.

3. Aurretiazko fiskalizazioa eta mota horretako espedienteen ondoriozko betebeharrak onartzearen faseko aurretiazko kontu-hartzea egiteko, kontu-hartzaitza eskudunari dokumentazio hau bakarrik bidali beharko zaio: aplikatu beharreko kontrol-araubidearen arabera kasuan-kasuan aplikatzekoak diren alderdiak —nahitaez egiaztatu beharrekoak— betetzen direla kontrolatzeko ezinbestekoa den dokumentazioa. Estatuko Administrazioaren kontu-hartzaile nagusiak zehaztu ahalko du zer dokumentu bidali behar diren.

4. Aurrekontuen Lege Orokorraren 150.2 artikuluko b) epigrafearen azken tartekian zehaztutako inbertsioaren egiaztapen materialaren kontu-hartzea abenduaren 28ko 2188/1995 Errege Dekretuaren eta maiatzaren 16ko 706/1997 Errege Dekretuaren II. tituluko IV. kapituluaren 4. atalean ezarritakoaren arabera egingo da, horietan garatzen baitira, hurrenez hurren, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak gauzatutako barne-kontrolaren araubidea eta Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzaitza Nagusiak gauzatutakoarena.

5. Agintzeko egintzak eta ordainketa materialeko egintzak abenduaren 28ko 2188/1995 eta maiatzaren 16ko 706/1997 errege-dekretuek —hurrenez hurren, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak gauzatutako barne-kontrolaren araubidea eta Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzaitza Nagusiak gauzatutakoarena garatzen dutenak— II. tituluko IV. kapituluaren 5. atalean ezarritakoaren arabera aztertuko dira.

6. Espediente horiek lehentasunez abiaraziko dira beste edozein espedienterik aurretik, eta kontrol-organoak erabaki bat hartu beharko du, gehienez ere bost egun balioduneko epean.

7. Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 149.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Ministro Kontseiluak kontu-hartzaitzako eginkizunaren ordeztasun-irratziaren kontrol iraunkorra aplikatzea erabaki ahalko du.

46. artikulua. *EBren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bidez finantzatutako proiektuen jarraipena egitea.*

1. Estatuko sektore publikoko entitateek kasuan-kasuan dagokion kontabilitate-informazioko sistema aldatzea sustatuko dute, hartara gastu-eragiketen kontabilitate-erregistroak proiektuaren edo ekimenaren erreferentzia-kode bakarra —EBren programa edo mekanismoa Estatuan kudeatzen duen agintaritzak esleitu diona— identifika dezan, 2021eko ekitalditik aurrera burutzen diren EBren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuei edo ekimenei egotz dakiekeen aurrekontu-betearazpeneko fase, kapitulu eta gastu mota orotan.

Era berean, gastu-eragiketa horietan, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren deialdi-kodea edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman kontratua identifikatzeko zenbakia eman beharko dira, kasuan-kasuan zer dagokion, baldin eta informazio hori eskuragarri badago (gastua zer fasetan dagoen, eskuragarri egongo da ala ez).

2. Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko entitateek, bai aurrekontu mugatzailea dutenek, bai gutxi gorabeherako aurrekontuarekin jarduten dutenek, EBren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektu edo ekimenei

egotzitako gastuen kontabilitate-betearazpenaren jarraipenari buruzko informazioa bidali beharko dute, aldian-aldian, EBren programa edo mekanismoa Estatuan kudeatzen duen agintaritzak ezartzen dituen aldizkakotasuna, prozedura eta formatua errespetatuz, eta hark zehaztutako kontabilitate-datuak aipatuta. Informazioa ematean, behar bezala identifikatuko da proiektua edo ekimena, Batasuneko programaren edo mekanismoaren erreferentzia-kode bakarraren bidez (1. apartatuan aipatutakoa), baita proiektua edo ekimena gauzatuko duen entitate edo organismoa ere.

Aurrekontuaren jarraipenari buruz eman beharreko informazioaren barruan sartuko dira fase bakoitzeko gastu-betearazpenaren zenbatekoak, baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren deialdi-kodea edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman kontratua identifikatzeko zenbakia ere, kasuan-kasuan zer dagokion, baldin eta informazio hori eskuragarri badago (gastua zer fasetan dagoen, eskuragarri egongo da ala ez).

3. Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak eta Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak behar diren aldaketak egitea sustatuko dute, Dirulaguntzen eta Laguntza Publikoen Datu Base Nazionalak eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformak, hurrenez hurren, deialdiari edo kontratuari dagokion proiektuaren edo ekimenaren identifikazioa jaso dezaten (jadanik jasotzen ez badute), kudeaketa-agintaritza nazionalak 2021etik aurrera onartzen diren deialdi eta kontratuei esleitutako erreferentzia-kode bakarraren bidez.

4. Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko entitateek behar diren prozedurak ezarriko dituzte bermatzeko ezen, 2021etik aurrera onartutako deialdi edo kontratueterako, Dirulaguntzen eta Laguntza Publikoen Datu Base Nazionalan edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman —kasuan-kasuan zer dagokion— identifikatuta dagoela zer proiektu edo ekimeni dagokion deialdia edo kontratua, aurreko apartatuak ezartzen duenarekin bat.

5. Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eta Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiak lineako zerbitzuak emango dituzte, datu hauek baliozkotzeko: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalako deialdi-kodea, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman kontratuak identifikatzeko zenbakia, eta proiektuak edo ekimenak Europako funtsak kudeatzeko sisteman daukan erreferentzia-kode bakarra. Datuok kontabilitate-eragiketetan txertatzea izango da helburua.

6. Artikulu honen 2. apartatuan ezarritakoa Ogasuneko ministroaren agindu baten bidez garatuko da, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak eta Europako funtsen arloan eskumena duen Ogasun Ministerioko zuzendaritza-zentroak batera proposatuta. Agindu horretan, halaber, proiektuak funtsen Europako erregulazioaren arabera egikaritzen ari direla egiaztatzeko egin beharreko jarraipena egiteko beharrezkoak diren egokitzapen gehigarriak ezarri ahalko dira.

7. Artikulu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 50. zerbitzuan —«Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismoa»— zuzkitutako kredituei, baldin eta haien helburu bakarra bada 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 1. artikuluko a) letraren 3. apartatuan aipatutako entitateetan egiten diren mota horretako gastuak finantzatzea. Kasu horretan, aipatutako entitateen gastu-eragiketen jarraipena egingo da.

II. KAPITULUA

Prozeduren izapidetzearen arloko berezitasunak

47. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Europako funtsen betearazpenaren esparruan emandako arauak onartzea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Europako funtsen betearazpenaren esparruan emandako arauak egiteko prozedura presakoa izango da Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 27.2 artikuluan ezarritako ondoretarako eta han adierazitako irismenarekin.

Bereziki, lege organiko baten bidez besterik ezartzen ez bada, azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.5 artikuluan ezarritako epeak erdira murriztuko dira, beste administrazio bati

edo independentzia edo autonomia berezia duen organo edo organismo bati txostenak eskatzen zaizkionean; kasu horretan, ez da beharrezkoa izango presako arrazoien berri ematea.

Azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26. artikuluan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitako txostenak, kontsultak eta irizpenak aurkezteko epea igarota, horiek jaso ez badira, zuzendaritza-zentro eskudunak izapidetzearekin jarraitu ahalko du, inguruabar hori arau-eragina aztertzeke memorian jasota. Nolanahi ere, dagokion araua formalki onartu aurretik, aplikatu beharreko legeriaren arabera nahitaezkoak diren txosten, kontsulta edo irizpen guztiak jasoko eta espedientearen sartuko dira.

2. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Europako funtsak betearazteari lotutako ekimen arauemaileak ez dira sartu beharko dagokion ekitaldian onartuko den urteko araugintza-planearan.

3. Arau horien arau-eragina aztertzeke memoriek berariazko atal bat izango dute, Suspertze Funtsoaren aplikazioarekin duten lotura justifikatzeko, eta Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 28. artikuluan aipatzen den ebaluazioa egin beharko zaie.

48. artikulua. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Europako funtsen kontura gastuak betearazteko administrazio-prozedurak presaz izapidetzea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan gastuak Europako funtsen kontura betearaztea dakarten administrazio-prozeduretan, presako izapidetzea eta lehentasunezko abiaraztea aplikatuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 33. eta 71. artikuluetan ezarritako moduan, eta administrazio-organismoak ez du presazko egoera hori arrazoitu beharrik izango prozedura hasteko erabakian.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoak ez du ezertan eragotziko errege lege-dekretu honen 50. artikuluan zehaztutakoa.

3. Eskabideak eta errekursoak aurkezteko epeen iraupena ez da inola ere murriztuko.

III. KAPITULUA

Kontratazioaren arloko berezitasunak

49. artikulua. *Kontratatzeke baimena.*

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuak eta esparru-akordioak salbuesita daude Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) 324. artikuluan ezartzen duen kontratatzeke baimenaren baldintzatik.

50. artikulua. *Presako izapidetzea.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuak eta esparru-akordioak lizitatzean, kontratazio-organismoek presako egoerak lizitazio-prozeduren izapidetze arrunta eragotzen duen aztertu beharko dute, hala bada azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 119. artikuluan aurreikusitako espedientearen presako izapidetzea aplikatu beharko da eta. Kontratazio-organismoek prozedura presaz izapidetu beharra justifikatzen baldin badute, berezitasun hauek aplikatu ahalko dira:

a) Prozedura irekia izapidetzeko ezarritako epeak gehienez ere erdira murriztu ahalko dira, luzeegiak baldin badira. Proposamenak aurkezteko epea salbuespena izango da; epe hori gutxienez hamabost egun naturalera murriztu ahalko dute kontratazio-organismoek, lizitazio-iragarkia bidaltzen den egunetik aurrera.

b) Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikulua 3. eta 4. apartatuetan prozedura ireki sinplifikatu arrunta izapidetzeari buruz ezartzen diren epeak ez dira aldatuko, artikulua horren 5. apartatua adierazitakoarekin bat etorriz. Proposamenak aurkezteko epea salbuespena izango da; epe hori gehienez ere hamabost egun naturalekoa izango da beti. Era berean, balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren adjudikazio-irizpideak kontuan hartzen diren kasuetan, kontratazio-organoaren zerbitzu teknikoek gehienez ere lau egun naturaleko epean baloratuko dituzte proposamenak, eta balorazioa egiten duten teknikariek izenpetu beharko dituzte.

c) Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 159.6 artikuluan ezartzen duen proposamenak aurkezteko epea gehienez ere zortzi egun naturalekoa izango da. Dena den, merkatuan eskura daitezkeen ondasunen erosketa arruntetarako, epea bost egun naturalekoa izango da.

d) Prozedura murriztua eta lizitazio-prozedura negoziatua izapidetzeko ezarritako epeak gehienez ere erdira murriztu ahalko dira, baldin eta luzeegiak badira. Salbuespena izango dira eskabideak aurkezteko epea (kontratazio-organoek gutxienez hamabost egun naturalera murriztu ahalko dute) eta proposamenak aurkezteko epea (ez da izango hamar egun naturaletik beherakoa).

e) Erregulazio harmonizatuko obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratuei aurreko a) eta d) apartatuetan jasotzen diren epe-murrizketak aplikatzeko, kontratazio-organoak egindako presa-deklarazioa jaso beharko da espedientean, behar bezala arrazoituta. Arrazoi horiek lizitazio-iragarkian ere adierazi beharko dira. Murrizketa horiek ez dira aplikatuko erregulazio harmonizatuko obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen adjudikazioan, edozein dela ere erabiltzen den adjudikazio-prozedura; izan ere, kontratu horietan, ezingo dira murriztu aipatutako apartatuetan aipatzen diren epeak.

2. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuak eta esparru-akordioak lehentasunez abiaraziko dira, izapidetzean parte hartzen duten organoek izapidetzen duten beste edozein kontraturen aurretik. Era berean, nahitaezko txostenak egiteko epeak bost egun naturalera murriztuko dira, eta epe hori ezingo da inola ere luzatu.

51. artikulua. *Prozedura ireki sinplifikatu laburtua.*

200.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuei eta 100.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuei azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 159. artikulua 6. apartatua ezartzen duen izapidetzea aplikatu ahalko zaie, baldin eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatuko badira, alde batera utzita prestazio intelektualak xede dituztenak.

52. artikulua. *Prozedura ireki sinplifikatu arrunta.*

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatuko diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 159. artikulua 1.etik 5.era bitarteko apartatuetan ezartzen duen prozedura ireki sinplifikatu arrunta erabiltzea erabaki ahalko dute kontratazio-organoek, bi baldintza hauek betetzen badira:

a) Europako Batzordeak erregulazio harmonizatuko kontratueterako ezarritako atalasea baino balio zenbatetsi txikiagoa duten kontratuak izatea.

b) Baldintza-agirian aurreikusitako adjudikazio-irizpideetan bakar bat ere ez egotea balio-iritzi batez ebalua daitekeena edo, halakorik badago, haien haztatzeak ez gaintzea guztizkoaren ehuneko hogeita bost. Salbuespena izango dira prestazio intelektualak (esaterako, ingeniari- edo arkitektura-zerbitzuak) ematea xede duten kontratuak, horietan haztatzea ezingo baita izan guztizkoaren ehuneko berrogeita bostetik gorakoa.

53. artikulua. *Kontratuen indarraldia luzatzea.*

Salbuespenez, energiaren arloko zerbitzu- eta hornidura-kontratueta, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 29.4 artikuluan xedatzen duena baino iraunaldi luzeagoa ezarri ahalko da (gehienez ere, hamar urte), baldin eta kontratuarekin zerikusi zuzena duten inbertsioak berreskuratzeko epe luzeagoa behar bada, inbertsio horiek kontratistaren gainerako ekoizpen-jardueran erabiltzeko edo ekonomiaren kontrako irizpideen arabera baliatzeko arriskurik ez badago eta aipatutako inbertsioak amortizatzeak kostu handia badu hornidura- edo zerbitzu-prestazioaren barruan. Nolanahi ere, inguruabar horiek guztiak kontratazio-espeditentean justifikatu beharko dira, eta argi adierazi beharko da zer inbertsiori buruz ari den eta zer berreskuratze-epe izango duten.

54. artikulua. *Kontratazio-agirien ereduak egitea.*

1. Zentro kudeatzaileek kontratazio-prozesuak homogeneousatu eta arintze aldera, klausula tekniko eta administratiboen agirien ereduak egitea sustatuko da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsak kudeatzeko egingo diren kontratuetaarako. Eredu horietan, irizpide berdeak, digitalak, berrikuntzakoak, ETEak sustatzekoak eta erantzukizun sozialekoak jasoko dira, beharrezkotzat jotzen badira eta dagokion lege-arauak babesten baditu.

2. Ogasun Ministerioak esparru-akordioak sinatu ahalko ditu Estatuaren Administrazio Orokorreko ministerioen eta organismoen kontratazioak bete beharreko baldintzak finkatzeko, laguntza teknikoaren, aholkularitzaren eta auditoretzaren eremuan.

55. artikulua. *Bitarteko propioentzako mandatuak.*

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsak aplikatzeko, botere adjudikatzaileak eta entitate kontratatzaileak antolatu ahalko dira, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuari, obra-emakidako kontratuari eta zerbitzu-emakidako kontratuari dagozkien prestazioak zuzenean emateko, tarifa-konpentsazio baten truke. Horretarako, bitarteko propio bat erabiliko dute, urriaren 1eko 40/2015 Legeak 86. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, betiere bitarteko propioari mandatu egin ondoren, eta kontuan hartuta, kasuan-kasuan zer dagokion, edo azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoa, edo otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuak (presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak) 25. artikuluan xedatutakoa. Kasu horietan, mandatu bat izenpetu aurretik, ez da beharko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.6.c) artikuluan aipatzen den Ministro Kontseiluaren baimena.

56. artikulua. *Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak.*

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsen kontura finantzatzen diren obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratueta, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29. artikuluan aipatzen den inbertsioa berreskuratzeko aldia artikulua horretan aurreikusitakoaren eta Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kalkulatu da, emakidadunak espero dituen kuxako fluxuak deskontatuta; nolanahi ere, kasu horietan, Estatuaren hogeita hamar urterako zorrak bigarren mailako merkatuan duen batez besteko errendimendua izango da aplikatu beharreko deskontu-tasa, oinarritzko 300 puntura arteko diferentziala gehituta.

Aurreko zor-tresna eta diferentzial horiek deskontu-tasa kalkulatzeko oinarritzat hartuko dira, eta Ogasuneko ministroaren agindu baten bidez aldatu ahalko dira, Estatuako Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak horri buruzko txostena egin ondoren, sektore publikoko kontratueta agertzen diren epeetara eta arrisku- eta errentagarritasun-baldintzetara egokitzeko.

57. artikulua. *Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen jarraibideak.*

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari dagokio errege lege-dekretu honetako kontratazio publikoari buruzko arauen interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea. Era berean, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari aurreko xedapenen aplikazioa koordinatzeko beharrezkoak diren jarraibideak emateko gaikuntza emango zaio, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuak behar bezala izapidetu ahal izateko. Jarraibide horiek Estatuko sektore publikoko kontratazio-organo guztiek bete beharko dituzte.

58. artikulua. *Kontratazio-arloko errekurtsio berezia.*

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuetan, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 44. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazio-arloko errekurtsio berezia jar badaiteke eta kontratista hautatzeko prozedurak elektronikoki izapidetu badira:

a) Kontratazio-organoak ezingo du kontratua formalizatu, harik eta kontratua adjudikatzeko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hamar egun natural igaro arte. Kasu horretan, kontratazio-arloko errekurtsio berezia jar daitekeenean, hamar egun naturaleko epea egongo da hura aurkezteko, eta azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 50.1 artikuluan ezarritako moduan zenbatuko da.

b) Errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak berariaz erabaki beharko du, errekurtsioa jarri eta bost egun balioduneko epean, azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezartzen diren errekurtsio ez onartzeko kausetakoren bat tartean den eta hartutako kautela-neurriei eutsiko zaien (baita etete automatikoko kasuetan ere).

IV. KAPITULUA

Europako funtsekin finantzatu daitezkeen hitzarmenak arintzeko neurriak

59. artikulua. *Europako funtsen konturako proiektuak egikaritzeko sinatzen diren hitzarmenak.*

1. Estatuaren Administrazio Orokorrak edo Estatuaren Administrazio Orokorrari lotutako edo haren mendeko organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitako proiektuak Europako funtsen kontura egikaritzeko egiten dituzten hitzarmenen izapidetak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak atariko tituluaren VI. kapituluan xedatutakoaren arabera arautuko dira, berezitasun hauekin:

a) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 50. artikuluan 2. apartatuko b) eta c) letretan jasotako xedapenak ez dira aplikatuko.

b) Kasu horietan, ez da aplikatuko Ministro Kontseiluaren 2017ko abenduaren 15eko Erabakiaren bigarren jarraibidean ezarritakoa. Erabaki horren bidez, hitzarmenak izapidetzeko jarraibideak onartzen dira, autonomia-erkidegoekin edo autonomia-erkidegoei lotutako edo haien mendeko organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateekin — barnean hartuta administrazio horiei atxikitako edo lotutako partzuergo eta unibertsitate publikoak— sinatu beharreko hitzarmenak Ministro Kontseiluak baimentzeari dagokionez.

c) Salbuespenezko kasuetan, hitzarmen horien indarraldia legez ezarritakoa baino luzeagoa izan daiteke, gehienez ere sei urtekoa, eta beste sei urtez luzatu ahalko dira. Organo eskudunak egoera salbuespenezkoa dela justifikatu beharko du, arrazoiak emanez, eta bereziki aipatu beharko du luzapen horrek ez duela mugatuko merkatuetako benetako lehia.

2. Era berean, aurreko apartatuan aipatutako hitzarmenek ez dituzte baimen hauek behariko:

- a) Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 74. artikuluan ezarritako Ministro Kontseiluaren baimena.
- b) 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian aipatzen den Ogasuneko ministroaren baimena, salbu eta hitzarmenean ezarritako ekarpen ekonomikoak guztira sei milioi eurotik gorakoak badira.

3. Indarreko ekitaldian hasten bada lehenengo apartatuan aipatzen diren hitzarmen-espeditenteak izapidetzen, baina hurrengo ekitaldira arte edo hurrengo ekitaldietara arte ez bada aurrekonturik betearaziko, aldez aurretik izapidetu ahalko dira, eta indarreko ekitaldian hitzarmena formalizatzeko fasera arte iritsi ahalko da, ekitaldi horretan inolako ordainketarik egin beharrik gabe.

4. Lehenengo paragrafoan aurreikusitako hitzarmenetan, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 21. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, administrazioaren hartzekodunak finantzatu diren jarduketak egiteko beharrezkoak diren prestaketa-eragiketengatik aurrerakina jasotzeko eskubidea izan ahalko du, hitzarmenean zehaztutako baldintzetan, baina jaso beharreko zenbateko osoaren % 50 jaso ahalko du gehienez.

V. KAPITULUA

Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzak arintzeko neurriak

60. artikulua. *Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzak izapidetzeko baldintzak.*

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra bete behar duten dirulaguntzak eta laguntzak emateko, ez da beharrezkoa izango lege horrek 10.2 artikuluan xedatzen duen Ministro Kontseiluaren baimena.

2. Halaber, horrelakoetan, antzeko epemuga duten tresnetan Estatuak igorritako zorrak duena baino interes-tasa txikiagoan maileguak eta aurrerakinak emateko, ez da beharrezkoa izango 2020ra arte luzatu den 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak bigarren xedapen gehigarriaren (Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako mailegu eta aurrerakinak) a) letran aurreikusten duen Ogasun Ministerioaren baimena.

3. Egiaztatzen baldin bada dirulaguntza jakin baten «deialdi publikoa egiteko zailtasunak daudela interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuen edo bestelako arrazoi justifikatuen ondorioz», ez da beharrezkoa izango Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2.c) artikuluan ezartzen duen Ogasun Ministerioaren txostena (lege beraren 28.2 artikulua bidaltzen gaitu artikulua horretara). Hala ere, Ogasun Ministerioak zehaztuko du zer alderdi egiaztatu behar diren azalpen-memorian dirulaguntza mota hori ematea justifikatzen duten inguruabarrei buruz.

61. artikulua. *Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia.*

1. Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzen oinarri arautzaileek dirulaguntzen deialdia hartu ahalko dute barnean.

2. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen eta deialdiaren onarpena izapidetzeko, bi txosten bakarrik exijitu ahalko dira: kasuan kasuko zerbitzu juridikoen txostena eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.1 artikulua bigarren paragrafoan aipatzen den Eskuordeko Kontu-hartzailetzaren txostena. Azken hori, nolana ere, hamar egun naturaleko epean emango da, eta epe hori ezingo da luzatu.

3. Maileguen edo aurrerakinen onuradunek egiaztatu beharko dute egunean daukatela Estatuaren Aurrekontu Orokorretan funts horiek kudeatze aldera berariatz kontsignatutako kredituen kontura aurretik eskuratu duten beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharraren ordainketa. Gastua kudeatzen duen zentroari dagokio, ordainketa egin aurretik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea. Beste modu batera egiaztatu ezin duenean, onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena eskatuko du, edota organo eskudunaren ziurtagiria, administrazio publiko bat baldin bada. Hori guztia, dirulaguntzei buruzko araudian ezarritako gainerako betebeharrak konplitzeari utzi gabe.

62. artikulua. *Europako funtsekin finantzatu daitezkeen lehiarik gabeko dirulaguntzak.*

1. Europako funtsekin finantzatu daitezkeen eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautzen dituen dirulaguntzen kasuan, horien xedea beste proposamen batzuekin alderatzeko balioespenik behar ez duten jarduera edo egoera zehatzak finantzatzea bada, dirulaguntzak emateko ebazpenak eman ahalko dira, eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren arabera, diruz lagundu daitezkeen egoera edo jarduera gertatu dela eta exijitutako gainerako baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

2. Estatuaren Administrazio Orokorren kasuan, dirulaguntza horien oinarri arautzaileak ministro-agindu baten bidez onartuko dira, eta aipatutako legean xedatutakoarekin bat datozen guztian aplikatuko dira.

63. artikulua. *Dirulaguntzen aplikazioa justifikatzea.*

Europako funtsen erabilerarekin lotutako dirulaguntzen aplikazioa justifikatzeko, berezitasun hauek ezartzen dira:

a) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduak 75. artikuluan ezartzen du zein den atalase ekonomikoa dirulaguntzaren onuradunak justifikazio-kontu erraztua aurkeztu behar izateko (apartatuaren azken puntuaren ondorengo testua gehituta); bada, 100.000 eurora igotzen da atalase hori.

b) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduak 72. artikuluan aurreikusitako justifikazio-kontuaren edukiari dagokionez, oinarri arautzaileek bidea eman dezakete 3.000 eurotik beherako fakturak aurkezteko betebeharratik salbuetsita geratzeko.

c) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren 24. artikuluan, 3.000 euroko muga ezartzen da dirulaguntzei buruzko araudian zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatu behar izateko; bada, 10.000 eurora igotzen da muga hori.

d) Eskabideekin batera memoria ekonomikoa aurkeztu behar badira, horietan jasotako konpromisoak malgutuko dira, aurrekontuan jasotako kontzeptuen arteko konpentsazioak ahalbidetzeko, betiere dirulaguntzaren helburua lortzera bideratuta badaude.

64. artikulua. *Dirulaguntzen alde aurretiko izapidetzea.*

Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzak alde aurretik izapidetu ahalko dira, kreditu erabilgarririk gabe, baldin eta kreditu aplikagarria erabiltzeko behar den aurrekontu-aldaketa eskatu dela egiaztatzen bada eta aldaketa hori onartzea dirulaguntzak emateko baldintzat hartzen bada. Nolanahi ere, horrelakoetan, ez dira aplikatuko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren 56. artikuluko baldintzak.

65. artikulua. *Eskualde-pizgarriak ematea.*

Aipatutako kasuetan, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Eskuordeko Batzordeak erabaki ahalko du abenduaren 27ko 50/1985 Legeak (Lurraldearteko Desoreka Ekonomikoak Zuzentzeko Eskualde Pizgarriei buruzkoak) 5.2 artikuluan ezarritako muga ez aplikatzea. Lege horrek eskualde-pizgarriak emateko eskumena esleitzen dio Eskuordeko Batzordeari, 15 milioi eurotik gorako proiektuetarako.

VI. KAPITULUA

Ingurumen-ebaluazioaren arloko berezitasunak

66. artikulua. *Ingurumen-ebaluazioaren arloko berezitasunak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuetan.*

Abenduaren 21eko 21/2013 Legeak 8.3 artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, Suspertzerako Europako Bitartekoaren bidez osorik edo zati batean finantzatutako proiektuen kasuan, salbuespenezko inguruabarrak daudela joko da baldin eta lehendik dauden instalazioen modernizazio edo hobekuntza soilak badira eta ez badakarte oin berriko eraikuntzarik, ukitutako gainazala handitzerik edo eraikuntza berrien gehikuntzarik, ezta ur-baliabideen gaineko eraginik ere. Gainera, finantzatu eta onartzeko betekizunetako bat izan beharko da ingurumen-baldintzak hobetzea, hala nola energia edo baliabide naturalak efizientziaz erabiltzea, ingurumen-inpaktua murriztea edo instalazioaren jasangarritasuna hobetzea.

VII. KAPITULUA

Lankidetzaren publiko-pribatuko tresnak, Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko

67. artikulua. *Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueretarako laguntzen deialdietarako eskabideak aurkezteko taldeak.*

1. Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueretarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileetan, nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldeak (publikoak zein pribatuak) onuradun izateko aukera ezarri ahalko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 11. artikulua 3. apartatuan ezarritako baldintzetan.

2. Taldekideek, eskaera egin aurretik, taldearen funtzionamendua arautzen duen barne-akordioa sinatu beharko dute, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango taldeak inongo forma juridikorik hartzea. Taldea eratzeko erabakiak, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko lituzke:

a) Jarduerak egikaritzeari dagokionez taldekide bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak.

b) Taldekide bakoitzak bere gain hartutako jardueren aurrekontua, eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.

c) Taldearen ordezkari edo ahaladun bakarra, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak konplitzeko behar adina ahalorde izango dituen.

d) Taldearen barne-antolaketa, kontingentzia-plana eta barne-auziak ebazteko xedapenak.

e) Parte-hartzaileen arteko hitzarmenak, erantzukizunari, kalte-ordainei eta konfidentzialtasunari buruz.

f) Eraitzen jabetza.

g) Eraitzen legezko babesa, eta, hala badagokio, ondoriozko jabetza industrialarena. Erabilera ez-esklusiboko eskubideak Espainiako administrazio publikoaren onurarako

lagatzeko gutxieneko aurreikuspen bat jaso beharko du, eta lagapenaren iraupenak jabetza intelektualaren edo industrialaren araudiarekin bat etorri beharko du, kasuan-kasuan.

h) Diruz lagundutako jardueraren emaitzetara irispidea izateko eskubideari eta haiek erabiltzeari eta zabaltzeari buruzko arauak.

3. Ezarri ahalko da taldea eratzeko erabakia gauzatzeko baldintza izango dela behin betiko emakida-ebazpen baten bidez laguntzaren onuradun deklaratzera.

4. Taldekide guztiak dirulaguntzaren onuraduntzat hartuko dira, eta erantzule solidario izango dira taldeak garatu beharreko diruz lagundutako jarduera guztietan, baita hauetan ere: justifikatzeko betebeharra, maileguen kuotak itzultzeko eginbeharra eta arau-hausteen ondoriozko erantzukizunak.

5. Taldea ezingo da desegin azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte, eta, dirulaguntza mailegu gisa eman bada, mailegua erabat amortizatu arte.

6. Taldeak proposatu ahalko du beste kide bat taldean sartzea, kideren bat taldetik kanporatzea edo ordezkaria aldatzea, oinarri arautzaileetan xedatutakoaren arabera, baldin eta aldaketa hori parte hartzeko baldintzekin bat badator, ekintza egikaritzeari kalterik egiten ez badio eta tratu-berdintasunaren printzipioaren aurkakoa ez bada.

7. Artikulu honetan aurreikusten ez denerako, azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta hura garatzeko araudia aplikatuko dira.

68. artikulua. *Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko partzuergoen araubide berezia.*

1. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuak egikaritzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak partzuergoak sortzeko baimena eman ahalko du, Komite Teknikoaren aldeko txostena jaso ondoren.

2. Partzuergoak eratzeko, ez da beharko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 123.2.a) artikuluan ezartzen duen legezko baimena.

3. Komite Teknikoak txosten bana emango du partzuergo bakoitzaren eraketari buruz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektu jakin bati lotuta.

4. Artikulu honetan aurreikusi ez den guztirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. tituluko VI. kapituluan ezarritakoa eta aplikatzekoak diren gainerako arauak aplikatuko dira.

5. Artikulu honetan araututako partzuergoetan diharduten langileak funtzionarioak edo lan-kontratudunak izan daitezke, partzuergoetan parte hartzen duten administrazio publikoetatik etorri beharko dute eta jatorrizko administrazioaren araubide juridikoari eta ordainsariei eutsiko diete.

Hala ere, langile horiek ez badira nahikoak eratze-hitzarmenean esleitutako eginkizunak betetzeko, lan-kontratudun langileak kontratatu ahalko dira, eta administrazio publiko eskudunak baimentzen dituen baldintzetan oinarritutako deialdi publikoaren bidez hautatuko dira.

69. artikulua. *Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzea, ekonomia mistoko sozietateen bidez.*

1. Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektu baten obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuen egikaritzea —erregulazio harmonizatuaren mende daudenean azaroaren 8ko 9/2017 Legeak definitutako zentzuan, edo otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren mende daudenean— zuzenean adjudikatu ahalko zaio kapitalaren zati handiena publikoa duen ekonomia mistoko sozietate bati; horretarako, bi baldintza hauek bete beharko dira:

a) Bazkide pribatua hautatzerakoan, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean edo otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren I. liburuan ezarritako arauak kontuan hartzea, kasuan-kasuan zer dagokion, kontratua betearaztea xede duen kontratu-adjudikazioa egiteko.

b) Bazkide pribatua hautatzerakoan kontuan hartu ziren kontratuaren xede eta baldintzak ez aldatzea.

2. Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruko proiektu baten obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuak —erregulazio harmonizatuaren mende daudenean azaroaren 8ko 9/2017 Legeak definitutako zentzuan, edo otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren mendeko jarduera bat xede dutenean— azaroaren 8ko 9/2017 Legea bete behar badute lege horren zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen dizkien atalaseak ez gaintzeagatik, kontratu horien egikaritzea zuzenean adjudikatu ahalko zaio kapitalaren zati handiena publikoa duen ekonomia mistoko sozietate bati; horretarako, bi baldintza hauek bete beharko dira:

a) Bazkide pribatua administrazio publikotzat hartzen ez den sektore publikoko entitate batek hautatu izana, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 321.2 artikuluko b) letran ezarritako arauen mendeko prozedura bati jarraituz, artikuluko honen hurrengo apartatuan adierazten diren berezitasunekin.

b) Bazkide pribatua hautatzerakoan kontuan hartu ziren kontratuaren xede eta baldintzak ez aldatzea.

Bazkide pribatua administrazio publiko batek aukeratu behar duenean, aurreko apartatua aplikatuko da; nolahi ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotako prozeduren arabera egingo da hautaketa.

3. Aurreko apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorri azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 321.2 artikuluko b) letran ezarritako prozedura aplikatu behar denean, berezitasun hauek hartu beharko dira kontuan:

a) 9/2017 Legeak 321.2 artikuluko b) letrako 1. puntuan aipatzen duen lizitazioaren gutxieneko dokumentazioa hau izango da: eratuko den ekonomia mistoko sozietateari adjudikatu behar zaion kontratuaren agiria eta kontratuari buruzko informazioa, bai eta entitate horren estatutuak ere; hala badagokio, akziodunen ituna eta aldean arteko harremana arautuko duten gainerako elementu guztiak.

b) Entitate kontratatzaileak, arrazoi zehatzak direla eta, adjudikazioaren baldintza batzuk adjudikazioduna aukeratu ondoren egokitu behar dituenean, egokitzeko aukera hori eta hura aplikatzeko baldintza zehatzak berariaz aurreikusi behar dira aurreko a) letran aipatutako dokumentazioan, parte hartu nahi duten enpresa guztiek hasieratik izan dezaten horren berri.

c) Lizitazio-iragarkian, ekonomia mistoko sozietateak egikaritu beharreko kontratuaren iraupen aurrekusiari buruzko informazioa jasoko da, bai eta izan ditzakeen luzapenei eta aldaketei buruzko informazioa ere.

4. Artikulu honetan aurreikusitakoaren arabera zuzenean adjudikatzen diren obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak aldatzeko, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 203.etik 207.era bitarteko artikuluetan edo otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuak 109.etik 112.era bitarteko artikuluetan ezarritakoa hartuko da kontuan, kasuan-kasuan zer dagokion; artikulu horiek guztiak kontratuak aldatzeari buruzkoak dira.

5. Ekonomia mistoko sozietateak aurreko 1. eta 2. apartatuetan aipatutakoez bestelako kontraturik eskuratu nahi badu, lizitazio-prozeduran parte hartu beharko du, azaroaren 8ko 9/2017 Legean edo otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, kasuan-kasuan zer dagokion.

6. Zenbait finantzabide erabiltzeko aukera alde batera utzi gabe —adibidez, obligazioak, jesapenak edo partaidetza-kredituak jaulkitzea—, obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratu bat egikaritzeko eraturako ekonomia mistoko sozietateak aukera hauek izango dituzte:

a) Kapital-gehikuntzetara jotzea; betiere, kapitalaren egitura berriak ez baditu adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen, kontratuan aurreikusita dagoenean salbu.

b) Egikaritu behar duten kontratuaren entitate adjudikatzaileraren aurrean dituzten kobratze-eskubideak titulizatzea, aldez aurretik kontratazio-organoaren baimena lortuta, balore-merkatuei buruzko araudian aurreikusitako baldintzak betez.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroa.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean, Ogasun Ministerioaren titularrak, ministro-agindu baten bidez, Ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko proiektu estrategikoetan interesa duten entitateen Estatuko erregistroa sortu eta martxan jarriko du.

Bigarren xedapen gehigarria. *Aparteko ordainsaria, helburuak lortzeagatik edo lanaldi partzialeko eginkizun gehigarriak esleitzeagatik.*

1. Jasotzen ari diren ordainsari aldakorraz gain, Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuen kudeaketa edo Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden zereginak esleituta dituzten unitateei edo unitatetzat jotzen ez diren lantaldeei atxikitako langileek aparteko haborokinak eta produktibitateak jaso ahalko dituzte, kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnan ezarritakoaren arabera, kontuan hartuta tresna horretan jasotako helburuen betetze-maila, emaitza horiek lortzeko langile bakoitzak egin duen ekarpena eta indarrean dagoen aurrekontu-araudia.

2. Kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnaren esparruan lanaldi partzialeko eginkizunak esleitzen zaizkien langileek ordainsari aldakor bat jaso ahalko dute aparteko produktibitateagatik, eginkizunen lan-karga gehigarriari lotuta.

3. Ogasun Ministerioak, plangintza estrategikoko tresnetan ezarritakoarekin bat eta indarrean dagoen aurrekontu-araudiaren arabera, ukitutako ministerio-sailek ematen duten aparteko produktibitatearako eta haborokinetarako baimena berrikusiko du, baita kontzeptu horien aurrekontu-zuzkidura ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Batzordeak horiek biak onartu ondoren.

4. Ogasun Ministerioak, indarrean dagoen aurrekontu-araudiarekin bat etorritik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzearekin lotuta dauden Europako funtsen kudeaketaz arduratzen diren unitateen esparruko lan-kontratudun langileen soldata-masarako baimena berrikusiko du, helburuak lortzeari lotutako ordainsari aldakorra emateko, sailaren edo organismoaren kudeaketarako plangintza estrategikoko tresnaren esparruan.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Kontratuaren arloan aurreikusitako berezitasunak otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren lehen liburuaren aplikazio-eremuari aplikatzea (3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak).*

Errege lege-dekretu honen IV. tituluko III. kapituluan aurreikusitako berezitasunak aplikatuko zaizkie, beren izaerarekin eta araubide juridikoarekin bateragarria den guztian, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatuko diren otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo liburuaren aplikazio-eremuko kontratuei (3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak).

Laugarren xedapen gehigarria. *Jarduketan efikazia.*

Aplikatu beharreko Batasuneko araudiaren arabera Europako funtsak xurgatuta diru-sarrerarik ez lortzeak ez du ekarriko Administrazioak errege lege-dekretu honetan aurreikusitakoa aplikatuz egindako jarduketak deusezak edo deuseztagarriak izatea.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko tresnen III. tituluaren III. kapituluko kudeaketa publikoko tresnak aplikatzea Defentsa Ministerioaren esparruan.*

Errege lege-dekretu honen III. tituluko III. kapituluaren 2. atalean jasotako giza baliabideak kudeatzeko neurriak langile militarrei aplikatuko zaizkie, haien araudi espezifikoaren arabera egokituta eta garatuta.

Seigarren xedapen gehigarria. *Europako finantzaketa xurgatzea.*

1. Europar Batasunetik datorren finantzaketa behar bezala xurgatzen dela ziurtatzeko, 28. ataleko —«Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa»— 7. kapituluaren —«Kapital-transferentziak»— kontsignatutako aurrekontu-kredituen kontura finantzatutako dirulaguntzak eta laguntzak emateko aurreikusitako guztizko zenbatekotik 170.000,00 mila euro gordeko dira 2021eko ekitaldian Europar Batasunetik datozen funtsekin kofinantzatutako edo finantzatutako jarduketetarako, eta, ahal dela, entitate honetara eta programa hauetara bideratuko dira: 303 entitatea, «Estatuko Ikerketa Agentzia»; 463B programa, «Ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatzea eta koordinatzea», eta 000X programa, «Barne-transferentziak». Bi programa horiek batera hartuko dira kontuan.

Kopuru horietatik gutxieneko ehuneko bat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 120. artikuluko b) eta c) apartatuetan jasotako eskualdeetan jarduketak finantzatzeko erabiliko da. Erregelamendu horrek Eskualde Garapeneko Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari eta Europako Itsas eta Arrantza Funtsari buruzko xedapen komunak ezartzen ditu. Aipatutako ehunekoa Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiak zehaztuko du, Zientzia eta Berrikuntzako Idazkariordeztzak proposatuta.

Deialdi edo jarduketa berri horietatik eta aurreko ekitaldietan egindako deialdietatik edo jarduketetatik eratorritako gastuaren aurrekontua betearaztean, eskualdez eskualde sailkatu beharko da gastua, kontabilitate-kudeaketari buruzko araudian aurreikusitako dokumentazio osagarria betez; guztia ere, Eskuordeko Kontu Hartzailletza eskudunak artikuluko honetan aurreikusitakoaren jarraipena egiteko aukera izan dezan.

Era berean, 2021eko ekitaldian, Europar Batasuneko funtsekin kofinantzatutako edo finantzatutako jarduketetarako, 30.000,00 mila euro zuzkituko dira 28.12.467C.749.07 aplikazioan («CDTIrentzat, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatutako I+G+B proiektuetarako»).

Hori horrela izan dadin, aipatutako kredituak aplikatzen zaizkien deialdi edo jarduketetan, organismo edo entitate arduradunak jakinaraziko du zer kopuru bideratu den eskualde bakoitzean eragiketarako finantzatzera.

2. Estatuko Ikerketa Agentziak kudeatuko ditu Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritza zenaren —Estatuko Ikerketa Agentzia sortu eta haren estatutua onartzen duen azaroaren 27ko 1067/2015 Errege Dekretuaren bidez desagertu zen estatu-idazkaritza hori— mendeko organo hauek egindako ziurtapenetatik datozen Europako funtsen itzulkinak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Idazkaritza Nagusia, Ikerketa Zientifikoa eta Teknikoko Zuzendaritza Nagusia eta Berrikuntza eta Lehiakortasuneko Zuzendaritza Nagusia. Estatuko Ikerketa Agentziak eskumena izango du aurrerakinak amortizatze beharrezkoak diren kontabilitate-eragiketarako proposatu eta izapidetzeko, bai eta itzulitako funtsak jaso eta kudeatzeko eta bere aurrekontuan sartzeko ere.

Xedapen iragankor bakarra. *Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen aldaketak aplikatzea.*

Errege lege-dekretu honen azken xedapenetako hirugarrenean aurreikusitako epeak abenduaren 9ko 21/2013 Legean araututako ingurumen-ebaluazioko prozeduretan aplikatuko dira, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera hasten badira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabetu egiten da Instituto Español de Comercio Exterior (ICEX) enpresa-erakunde publikoa sortuz nazioartekotzea bultzatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 8ko 4/2011 Errege Lege Dekretuaren 7.2 artikulua, ICEX España Exportación e Inversiones entitatea bitarteko propietzat jotzen baitu. Gainera, beste hauek ere indargabetuko dira: 4.1.II artikulua; bitarteko propioaren izaerari buruzko aipamenak 29. artikulua azken tartekian; eta Instituto Español de Comercio Exterior (ICEX) enpresa-erakunde publikoaren estatutua onartzen duen azaroaren 14ko 1636/2011 Errege Dekretuaren 30. artikulua.

2. Halaber, indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-tituluak.*

1. Errege lege-dekretu hau 149.1. artikulua 13., 14., 15., 18. eta 23. puntuetan xedatutakoa kontuan hartuz ematen da. Puntu horiek eskumen eskusiboa esleitzen diote Estatuari arlo hauetan: jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; Ogasuna eta Estatuaren Zorra; ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapena eta koordinazio orokorra; administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak eta administrazio publikoetako funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarriak, zeinak tratamendu komuna bermatuko baitiete administratuei administrazio publikoetan; administrazio-prozedura erkidea, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen berezko antolaketak eragiten dituen berezitasunak; nahitaezko desjabetzeari buruzko legeria; kontratu eta emakida administratiboari buruzko oinarritzko legeria eta administrazio publiko guztien erantzukizun-sistema; eta ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legeria, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek arau gehigarriak ezartzeko dituzten ahalmenak.

2. Hauek ez dira oinarritzkoak, eta, horrenbestez, Estatuaren Administrazio Orokorrari eta Estatu sektore publiko instituzionalari soilik aplikatu behar zaizkie:

- a) 5. artikulua;
- b) 6. artikulua;
- c) 14. artikulua;
- d) 15. artikulua;
- e) 16. artikulua;
- f) 17. artikulua;
- g) 18. artikulua;
- h) 22. artikulua;
- i) III. tituluaren III. kapitulua;
- j) IV. tituluaren I. kapitulua, 37. artikulua 4. apartatua eta 39., 44. eta 46. artikulua izan ezik;
- k) IV. tituluaren II. kapitulua;
- l) 48. artikulua;
- m) 54. artikulua 2. apartatua;
- n) 55. artikulua;
- ñ) 59. artikulua;
- o) 60. artikulua 2. eta 3. apartatuak;
- p) 61. artikulua 2. eta 3. apartatuak;

- q) 62. artikulua 2. apartatua;
- r) 63. artikulua;
- s) 64. artikulua;
- t) 65. artikulua;
- u) 66. artikulua;
- v) 68. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak;
- w) bigarren xedapen gehigarria;
- x) bosgarren xedapen gehigarria;
- y) xedapen iragankor bakarra;
- z) azken xedapenetako hirugarrenean ezarritako epeen erregulazioa;
- aa) azken xedapenetako laugarrena;
- ab) azken xedapenetako bosgarrenaren Bi apartatua.

Azken xedapenetako bigarrena. *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aldatzea.*

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aldatzen da, eta aldaketak errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak. Honela geratzen da idatzita:

Bat. 48. artikulua 8. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«8. Alderdiek adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak.

Estatuaren Administrazio Orokorrak edo haren mendeko edo hari lotutako organismo publikoetako batek edo zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenak efikazak izango dira hitzarmen horiek Estatuko sektore publikoko Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa — zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita— inskribatu eta *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu ondoren. Formalizatzen direnetik, 5 egun balioduneko epea egongo da haiek inskribatzeko. Era berean, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko dira, formalizatzen direnetik 10 egun balioduneko epean, hargatik eragotzi gabe beste administrazio sinatzaileari dagokion autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialean argitaratzeko aukera».

Bi. 50. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Gainera, Estatuaren Administrazio Orokorrak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek sinatzen dituzten hitzarmenei hauek erantsi beharko zaizkie:

a) Zerbitzu juridikoaren txostena. Txostena gehienez ere zazpi egun balioduneko epean egin beharko da, eskaera egiten denetik aurrera; epe hori igarotakoan, izapideekin jarraituko da. Nolanahi ere, hitzarmena burutu aurretik egin beharko da txostena, eta espedientean sartu. Ez dago txosten hori zertan eskatu hitzarmena bat badator dagokion zerbitzu juridikoak aurretiaz txostena egin dion eredu normalizatuarekin.

b) Aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen beste edozein txosten nahitaezko. Gehienez ere zazpi egun balioduneko epean egin beharko da, eskaera egiten denetik aurrera; epe hori igarotakoan, izapideekin jarraituko da. Nolanahi ere, nahitaezko txosten guztiak egin eta espedientean sartu beharko dira, hitzarmena burutu aurretik.

c) Ogasun Ministerioak alde aurretik emandako baimena, hitzarmena sinatu, aldatu, luzatu eta alderdien arteko adostasunez suntsiarazteko. Baimen hori eman dela ulertuko da, baldin eta eskaera egin eta zazpi egun balioduneko epean eman ez bada.

Sinatu beharreko hitzarmena aurreko paragrafoan aipatutako baimenetik salbuetsita badago, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txostenik ere ez du beharko.

Nolanahi ere, Estatuaren Administrazio Orokorrak eta hari lotutako edo haren mendeko organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateek autonomia-erkidegoekin edo toki-erakundeekin edo haiei lotutako edo haien mendeko organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateekin sinatzen dituzten hitzarmenatarako, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txostena nahitaezkoa izango da, kasu hauetan:

1. Estatuaren Administrazio Orokorrak azpiegituren titulartasuna lagatzea edo eskuratzea xede duten hitzarmenak.

2. Lege honen 123. artikuluan aurreikusitako partzuergoak sortzea xede duten hitzarmenak.

d) Administrazio publikoen artean sinatutako urte anitzeko hitzarmenek barnean hartzen badute Estatuak funtsen ekarpenak egitea beste administrazio publiko batek eskusiboki egin beharreko jarduketak finantzatzeko, eta Estatuak, bere eskumenen barruan, konpromisoak hartzen baditu hirugarrenen aurrean, Estatuak etorkizunean urteko ordainketak egiteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditua egotea.

e) Autonomia-erkidegoekin sinatutako administrazio arteko hitzarmenei dagokienez, Senatuari bidaliko dizkio Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak».

Hiru. Zazpigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Lankidetz-organismoak sortzen, aldatzen edo azkentzen badira edo Estatuaren Administrazio Orokorrak edo hari lotuta edo haren mendean dagoen organismo publiko edo entitatearen batek egindako hitzarmen bat sinatzen, azkentzen, luzatzen edo aldatzen bada, horren berri eman beharko dio sinatu duen organoak Lankidetz-Organoa eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoari, inskriba daitekeen egitatea gertatu eta bost eguneko epean».

Lau. Hogeita bosgarren xedapen gehigarria eranstean da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua enpresa-erakunde publikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) enpresa-erakunde publikoaren izaerari eutsiko dio, eta, haren legeria espezifikoa jasotako berezitasunak berezitasun, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasota dauden eta entitate horiei aplikatu dakizkiekeen xedapenen arabera arautuko da, lege horren 103.1 eta 107.3 artikuluetan gehienbat merkatuko diru-sarrerekin finantzatzeari buruz xedatzen dena soilik salbuetsirik».

Bost. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria eranstean da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *ICEX España Exportación e Inversiones enpresa-erakunde publikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

ICEX España Exportación e Inversiones enpresa-erakunde publikoak enpresa-erakunde publikoaren izaerari eutsiko dio, eta, haren legeria espezifikoa jasotako berezitasunak berezitasun, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasota dauden eta entitate horiei aplikatu dakizkiekeen xedapenen

arabera arautuko da, lege horren 103.1 eta 107.3 artikuluetan gehienbat merkatuko diru-sarrerekin finantzatzeari buruz xedatzen dena soilik salbuetsirik».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzea.*

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 17. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Ingurumen-organoak gehienez ere bi hilabeteko epea izango du, ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera —plan edo programaren zirriborroarekin eta hasierako agiri estrategikoarekin batera— jasotako egunetik zenbatzen hasita, 19.1 artikuluan aurreikusitako kontsultak egiteko eta 19.2 artikuluan araututako ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari buruzko agiria egiteko.

3. Ingurumen-azterketa estrategikoa eta 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako kontsultak eta informazio publikoaren prozedura egiteko epea gehienez ere bederatzi hilabetekoa izango da, irismen-agiria sustatzaileari helarazitako egunetik zenbatzen hasita.

4. Espedientearen azterketa teknika egiteko eta ingurumen-adierazpen estrategikoa burutzeko lau hilabeteko epea izango du ingurumen-organoak, espediente osoa jasotako egunetik hasita, 24. eta 25. artikuluen arabera».

Bi. 19. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Ingurumen-organoak plan edo programaren zirriborroari eta hasierako agiri estrategikoari buruzko kontsultak egingo dizkie eragindako administrazio publikoari eta pertsona interesdunei, eta haiek hogeita hamar laneguneko epea izango dute, jasotako egunetik zenbatzen hasita».

Hiru. 22. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Eragindako administrazio publikoek eta pertsona interesdunek hogeita hamar laneguneko epea izango dute, gutxienez, plan edo programaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa kontsultarako eta egoki irizitako txosten eta alegazioak egiteko jarritako egunetik zenbatzen hasita».

Lau. 25. artikulua 1. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Ingurumen-organoak, espedientearen azterketa teknika amaitu ondoren, ingurumen-adierazpen estrategikoa egingo du, lau hilabeteko epean, espediente osoa jasotako egunetik zenbatzen hasita».

«3. Ingurumen-adierazpen estrategikoa egin ondoren, hamar laneguneko epean bidaliko da, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo dagokion aldizkari ofizialean argitara dadin, ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan argitaratzeari kalterik egin gabe».

Bost. 26. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Hamar laneguneko epean, plan edo programa abian jarritako edo onetsitako egunetik zenbatzen hasita, agiri hauek bidaliko ditu, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko:

a) Plan edo programa abian jartzeko edo onesteko ebazpena, eta organo substantiboak plan edo programa horren eduki osoa jarriko duen helbide elektronikoaren aipamena.

b) Honako alderdi hauek kontuan hartuko dituen laburpena:

1. Nola integratu diren planean edo programan ingurumenari dagozkion alderdiak.

2. Planean edo programan nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak (mugaz gaineko kontsultak ere barnean hartuta, halakorik balego) eta ingurumen-adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izanez gero.

3. Hautatutako aukera hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako aukerekin alderatuta.

c) Plan edo programaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginaren jarraipena egiteko hartu diren neurriak».

Sei. 28. artikulua 4. apartatuaren lehen paragrafoa eta 5. apartatua aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«4. Ingurumen-organok kontsulta egingo die hogeita hamar egun baliodun, gutxienez, sustatzaileari, organo substantiboari eta lehendik, 22. artikulua arabera, kontsultatutako pertsona interesdunei eta eragindako administrazio publikoei, txostenak egin ditzaten, egoki irizitako alegazioak planteatu ditzaten, eta beharrezkotzat jotzen dituzten dokumentuak aurkez ditzaten. Kontsulta hori bide elektronikoak edo beste edozein erabilita egingo da, baldin eta kontsulta egin dela egiaztatua geratzen bada.

5. Ingurumen-organok, bi hilabeteko epean, prozeduraren hasieratik zenbatzen hasita, lehen egindako ingurumen-adierazpen estrategikoa aldatzeari buruzko erabakia hartuko du».

Zazpi. 30. artikulua 2. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Eragindako administrazio publikoek eta pertsona interesdun kontsultatuek gehienez ere hogeita hamar egun balioduneko epean eman beharko dute irizpena, txostenaren eskaera jasotako egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan haien adierazpenik jaso ez bada, prozedurak aurrera egingo du, baldin eta ingurumen-organok ingurumen-txosten estrategikoa egiteko irizpen-elementu nahikoak baditu. Kasu horretan, lehen aipatutako adierazpenak geroago jasotzen badira, ez dira kontuan hartuko».

Zortzi. 31. artikulua 1. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Ingurumen-organok hiru hilabeteko epean egingo du ingurumen-txosten estrategikoa, hasteko eskaera eta hari erantsi beharreko agiriak jasotako egunetik zenbatzen hasita».

«3. Ingurumen-txosten estrategikoa egin ondoren, ingurumen-organok hamar laneguneko epean bidaliko du, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo dagokion aldizkari

ofizialean argitara dadin, ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan argitaratzeari kalterik egin gabe».

Bederatzi. 32. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«32. artikulua. *Plana edo programa abian jartzearen edo onestearen publizitatea.*

Hamar laneguneko epean, plan edo programa onetsitako egunetik zenbatzen hasita, agiri hauek bidaliko ditu, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratzeko:

a) Plan edo programa abian jartzeko edo onesteko ebazpena, eta organo substantiboak plan edo programa horren eduki osoa jarriko duen helbide elektronikoaren aipamena.

b) Ingurumen-txosten estrategikoa argitaratu den *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* edo dagokion aldizkari ofizialaren erreferentzia».

Hamar. 33. artikulua 2. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Aukera gisa, sustatzaileak eska dezake, 34. artikuluari jarraituz, ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egin dezala. Horretarako gehieneko epea bi hilabetekoa izango da».

«4. Ingurumen-inpaktuaren espedientearen azterketa teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena lau hilabeteko epean egingo dira, ingurumen-inpaktuaren espediente osoa jasotzen denetik hasita».

Hamaika. 34. artikulua 1. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazio-prozedura hasi aurretik, sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egiteko. Irismen-agiria egiteko epea gehienez ere bi hilabetekoa izango da, irismen-agiriaren eskaera jasotako egunetik kontatzen hasita».

«4. Eragindako administrazio publikoek eta pertsona interesdun kontsultatuek gehienez ere hogeita laneguneko epean eman beharko dute irizpena, dokumentazioa jasotako egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori amaitzen bada haien adierazpenik jaso gabe, prozedurak aurrera egingo du, baldin eta ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egiteko irizpen-elementu nahikoak baditu. Kasu horretan, lehen aipatutako adierazpenak geroago jasotzen badira, ez dira kontuan hartuko.

Ingurumen-organoak irizpen-elementu nahikoak ez baditu, bai ukitutako administrazio publikoen txostenik jaso ez delako, bai txosten horiek jaso arren erabakitzeko nahikoak ez direlako, txostena egin behar zuen organoaren gainetik hierarkikoki hurrena dagoen organoaren titularrari pertsonalki eskatuko dio organo eskudunari agintzeko, hamar laneguneko epean, eskaera jasotako egunetik zenbatzen hasita, dagokion txostena entrega dezan, epe horretan, atzerapenaren erantzuleak izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

Egindako eskaera organo substantiboari eta sustatzaileari jakinaraziko zaie, eta irismen-agiria egiteko epea etenda geratuko da.

Horretarako emandako hamar laneguneko epea igarota, ingurumen-organoak ez baditu jaso ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko garrantzitsuak diren administrazio publikoen txostenak, organo horrek irismen-agiria egingo du, eta bertan jasoko du ez dagoela eskatutako txostenik, sustatzaileak eta organo substantiboak horren berri izan dezaten.

Nolanahi ere, sustatzaileak administrazio eskudunari eskatu ahal izango dio txostena egiteko, uztailaren 13ko 9/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 29.1 artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez».

Hamabi. 40. artikulua 2. apartatuko hirugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Bi hilabete igarota, organo substantiboak ez baditu igorri eskatutako txostenak, edo, behin aurkeztuta, haien edukia oraindik nahikoa ez bada, ingurumen-organok txostena egin behar zuen organoaren gainetik hierarkikoki hurrena dagoen organoaren titularrari pertsonalki eskatuko dio organo eskudunari agintzeko, hamar eguneko epean, eskaera jasotako egunetik zenbatzen hasita, dagokion txostena entrega dezan, atzerapenaren erantzuleak izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe. Egindako eskaera organo substantiboari eta sustatzaileari jakinaraziko zaie, eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko epea etenda geratuko da».

Hamahiru. 41. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Ingurumen-adierazpen estrategikoa egin ondoren, ingurumen-organok hamar laneguneko epean bidaliko du, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo dagokion aldizkari ofizialean argitara dadin, ingurumen-organoren egoitza elektronikoa argitaratzeari kalterik egin gabe».

Hamalau. 46. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Ukitutako administrazio publikoek eta pertsona interesdun kontsultatuek gehienez ere hogeit hamar eguneko epean eman beharko dute irizpena, txostenaren eskaera jasotako egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori amaitzen bada haien adierazpenik jaso gabe, prozedurak aurrera egingo du, baldin eta ingurumen-organok ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko irizpen-elementu nahikoak baditu. Kasu horretan, lehen aipatutako adierazpenak geroago jasotzen badira, ez dira kontuan hartuko».

Hamabost. 47. artikulua 1. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Ingurumen-organok hiru hilabeteko epean egingo du ingurumen-inpaktuaren txostena, hasteko eskaera eta hari erantsi beharreko agiriak jasotako egunetik zenbatzen hasita».

«3. Ingurumen-inpaktuaren txostena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da, txostena egin eta hamar laneguneko epean, ingurumen-organoren egoitza elektronikoa argitaratzeari kalterik egin gabe».

Hamasei. 48. artikulua 4. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«4. 47.2.b) artikuluan aurreikusitako kasuan, ahalik eta arinen eta, betiere, proiektuari baimena emateko ala ukatzeko erabakia hartzen duenetik hamar lanegun igaro baino lehen, erabaki horren edukiaren laburpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da.

Halaber, bere egoitza elektronikoa argitaratuko ditu hauek: erabakiaren edukia eta erantsi zaizkion baldintzak, halakorik bada; erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeta nagusiak, 46. artikuluar jarrailuz bildutako informazioa barne, eta nola txertatu den informazio hori edo nola hartu diren aintzat, bereziki, eragindako estatu kide batengandik jasotako oharra, 49. artikuluan aipatzen baitira; *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* edo kasuan kasuko aldizkari ofizialaren zein zenbakitan argitaratu zen ingurumen-inpaktuaren txostena».

Azken xedapenetako laugarrena. *2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea aldatzea.*

2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen bigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetze aldera, zuzenean edo zeharka Estatuaren Aurrekontu Orokorren 8. kapituluaren kontura finantzaturiko mailegu eta aurrerakinak emateko, honako arau hauek bete beharko dira:

a) Ogasuneko ministroak berariazko baimena ematean salbu, maileguak eta aurrerakinak ezingo dira eman antzeko epemuga duten tresnetan Estatuak jaulkitako zorrak duen interes-tasa baino txikiagoan.

Norgehiagoka-prozeduren bidez eman beharreko mailegu eta aurrerakinen kasuan, aipaturiko baldintza deialdia onartu aurretik bete beharko da.

Espedientean, dagokion organo kudeatzaileak justifikatu egin beharko du interes-tasaren zehaztapena. Adierazitako erreferentziarekin zuzeneko loturarik egiterik ez bada, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren txostena ere aurkeztu beharko da.

Arau hori ez da aplikatuko kasu hauetan:

- Langileei ematen zaizkien aurrerakinak.
- Batasuneko funtsez osaturik dauden eta itzuli beharrekoak diren aurrerakinak.
- Interes-tasa lege-lerruneko arauen bidez araututa daukaten mailegu edo aurrerakinak.
- Europako funtsak erabiliz finantzatzen diren edo itzul daitezkeen dirulaguntzak.

b) Maileguen edo aurrerakinen onuradunek egiaztatu beharko dute egunean daukatela aurrez Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura eskuratutako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharraren ordainketa. Gastua kudeatzen duen zentroari dagokio, ordainketa egin aurretik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea. Beste modu batera egiaztatu ezin duenean, onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena eskatuko du, edota organo eskudunaren ziurtagiria, administrazio publiko bat baldin bada».

Azken xedapenetako bosgarrena. *9/2017 Legea aldatzea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).*

9/2017 Legea aldatzen da (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora), eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 32. artikulua 7. apartatuko b) letraren hirugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Halaber, ez da aplikatzekoa izango administrazio publikoari zerbitzu informatiko eta teknologikoak emateko enkargua jaso duten bitarteko propioek sare eta sistemen bateragarritasuna, komunikagarritasuna eta segurtasuna eta informazioaren osotasuna, fidagarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko egiten dituzten kontratuetan, ez eta telekomunikazioak sustatzeko, informazioaren gizartea eta gizarte digitala garatzeko eginkizuna duten bitarteko propioek egiten dituzten kontratuetan ere».

Bi. 45. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Estatuko sektore publikoko botere adjudikatzaileen eremuan, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiari esleituko zaio aurreko artikuluan zehaztutako errekurtsoak aztertzeko eta ebazteko eskumena. Organo espezializatu horrek erabateko askatasun funtzionala izango du bere eskumenak gauzatzean. Organo hori Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikita egongo da, eta lehendakari batek eta gutxienez bost kidek osatuko dute. Aurkeztutako aztergaien tamaina dela-eta auzitegiak kide gehiago izatea komeni denean, kideen kopurua gehitu ahalko da, errege-dekretu bidez.

Epaimahaia bi ataletan banatuta egongo da, gutxienez. Atal horiek epaimahaiko lehendakaria izango dute buru, eta kide batek edo gehiagok eta idazkari nagusiak osatuko dute. Lehendakariak ataleko kideetako bati eskuordetu ahalko dio eginkizuna.

Lehendakariak erabaki baten bidez zehaztuko du nola banatuko diren eskudantziak atalen eta osoko bilkuraren artean, eta nola banatuko diren gaiak atalen artean».

Hiru. 208. artikulua 2. apartatuko a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Kontratua gidatzen duen baldintza-agiriak besterik ezarri ezean, ordainketa horrek soilik honako kontzeptu hauek jasoko ditu, baldin eta 1. puntutik 4. puntura haien errealitatea, eraginkortasuna eta zenbatekoa fede emateko moduan egiaztatzen bada:

1.a Behin betiko bermearen mantentze-gastuak.

2.a Kontratatik etenaldia hasten den garaian kontratua betetzeko itunduta dauzkan lan-kontratuak azkentzeagatiko edo eteteagatiko kalte-ordainak.

3.a Etenaldian nahitaez kontratuari atxikita geratu behar duten langileen soldata-gastuak.

4.a Makineriaren, instalazioen eta ekipamenduen alokairuak edo mantentze-kostua, baldin eta kontratatik egiaztatzen badu bitarteko horiek ezin izan zirela erabili etendako kontratua betetzeaz beste xede batzuetarako.

5.a Kendu egin da.

6.a Kontratatik izenpetutako aseguru-polizei dagozkien gastuak, kontratuaren objektuari lotutako administrazio-klausulen agirian aurreikusitakoak».

Azken xedapenetako seigarrena. *Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzea.*

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 78. artikulua aldatzen da, Leheneratze Ekologikorako eta Erresilientziarako Funtza (LEEFa) sortzeko. Aldaketa horrek Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak. Honela geratzen da idatzita 78. artikulua:

«78. artikulua. *Leheneratze Ekologikorako eta Erresilientziarako Funtza (LEEFa) (nortasun juridikorik gabeko funtza).*

1. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 137. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Leheneratze Ekologikorako eta Erresilientziarako Funtza (nortasun juridikorik gabeko funtza; aurrerantzean, LEEFa) sortzen da, helburu honekin: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eredu produktibo eta sozial ekologikoagorako trantsizioa lortzeko lagungarriak izan

daitezkeen neurriak abian jartzea, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren eskumenen eremuan, arlo hauetan:

- a) Urak eta jabari publiko hidraulikoa.
- b) Kostaldeak eta itsasoaren eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babesa eta kontserbazioa.
- c) Klima-aldaketa, hura apaltzea, hartara egokitzea eta erresilientzia klimatikoa indartzea.
- d) Kutsadura prebenitzea eta teknologia garbien erabilera eta gutxiago kutsatzen duten eta jasangarriagoak diren kontsumo-ohiturak sustatzea, ekonomia zirkularraren politikarekin bat.
- e) Natura-ondarea, biodibertsitatea eta basoak babestea.
- f) Meteorologia eta klimatologia.
- g) Ministerioak Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren eta haren organismo publikoen bidez esleituta duen beste edozein.

Era berean, arestian zerrendatutako gaiei dagokienez, Europako beste funts batzuen kontura finantzatu diren neurriak gauzatu ahalko ditu, funts horiei aplikatu beharreko xedapenek aurreikusitakoaren arabera.

2. LEEFak urteko eta urte anitzeko ekintzak finantzatu ahalko ditu. Era berean, lurralde-kohesioa ziurtatzeko kofinantzaketarako tresna gisa jardun ahalko du.

3. Estatuaren Aurrekontu Orokorretan azaltzen den ustiapen- eta kapital-aurrekontuarekin zuzkituko da LEEFa. Hala aurreikusten den kasuetan, helburu berberak dituzten Europar Batasuneko finantza-tresnekin kofinantzatuko diren zuzkidurak ezarri ahalko dira, eta, hala badagokio, erregelamenduz ezartzen diren beste finantzaketa-iturri batzuekin ere zuzkitu ahalko da.

4. Estatuaren Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek egikaritu dituzte LEEFaren kontura finantzatzen diren ekintzak, norik bere eskumenen esparruan, erregelamenduan ezarritako prozedurari jarraikiz.

5. LEEFaren kontura, 1. apartatuan zehaztuta dagoen funts horren xedearren barruan sar daitezkeen dirulaguntzak emango dira.

6. Ezingo zaio inola ere LEEFaren konturako dirulaguntzarik eman entitate bati edo gehiagori, haien forma juridikoa edozein izanda ere, baldin eta barne-merkatuko lehia faltsutzea ekar dezaketen abantailazko jarduera ekonomiko bat egiten badute eta estatu kideen arteko merkataritza-trukeetan eragina izan badezakete.

7. Era berean, Estatuaren Administrazio Orokorren eta haren organismo publikoen eskumeneko inbertsio-proiektuak egin ahalko dira, haien xedearren barruan baldin badaude.

LEEFak kide anitzeko organoen bidez edo kontratazio-organo gisa jardungo duten organismoen bidez egingo ditu kontratazioak. Organo horiek erregelamendu bidez zehaztuko dira.

8. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 84., 137., 138. eta 139. artikuluetan xedatutakoaren arabera, nortasun juridikorik gabeko funtsen berezko izaera juridikoa du LEEFak, eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari atxikita egongo da Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren bidez. Hala badagokio, Gobernuak erregelamendu bidez zehazten duen sektore publiko instituzionaleko entitatea arduratu ahalko da LEEFaren finantza-administrazioa kudeatzeaz.

9. Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 2.2.f) artikuluan aipatutako nortasun juridikorik gabeko funtsetarako, funtsaren aurrekontu-, ekonomia-, finantza-, kontabilitate- eta kontrol-araubidea 47/2003 Legean jasotakoa izango da.

10. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari atxikitako artezkaritza-kontseilu bati dagokio Funtsa gainbegiratzea eta kontrolatzea, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren bidez. Kontseilu horren burua izango da abenduaren 26ko 47/2003 Legearen 138. artikuluan aipatzen den kontu-emaillea.

Kontseiluaren osaera, eginkizunak eta funtzionamendu-arauak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

11. LEEFaren finantza-administrazioa kudeatzea erregelamendu bidez zehaztutako sektore publiko instituzionaleko entitate bati badagokio:

a) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta administratzaile horrek sinatutako hitzarmenaren bidez ezartzen den interes-tasaren arabera ordainduko da, merkatuan baliabideak erakartzeak ministerioari dakarkion kostuaren arabera.

Hitzarmen horren arabera, hauek izango dira, besteak beste, hura indargabetzeko kausak: artikulua honetan eta haren erregelamendu bidezko garapenean bildutako debekuak urratzea eta betebeharrak ez konplitzea. Urriaren 1eko 40/2015 Legeak 49.f) artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenak batzorde misto bat edo antzeko organo bat izan beharko du, eta hari esleituko zaio hitzarmena egikaritzearen eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena egitea, konpromisoak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea eta hitzarmena interpretatzeko eta betetzeko arazoei irtenbidea ematea.

b) LEEFa administratzaileak dakarren kudeaketa-kostua likidatuko du, haren finantzaketa-lerroetan xedatutako zenbatekoetan oinarrituta; a) paragrafoan aurreikusitako hitzarmenean ezarriko da zenbatekoa den kudeaketa-kostua.

12. LEEFa kudeaketa-mandatuen bidez kudeatu ahalko da, komenigarritzat jotzen baldin bada, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, LEEFak enkarguak egin ahalko dizkie bitarteko propio pertsonifikatuei, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 33. artikulua arabera.

13. Azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 90. artikulua arabera, nortasun juridikorik gabeko funts hori Altxor Publikoaren kontzeptuan sartuko da. LEEFa azkentzea justifikatzen duen egoeraren bat gertatzen denean, haren diruzaintza administratzaiez arduratzen den kudeatzaileak funtsaren geldikinak Altxor Publikoari itzuliko dizkio, Estatuko diruzaintza kudeatzeaz arduratzen baita».

Azken xedapenetako zazpigarrena. Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina aldatzea.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 19. artikulua 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Aurreko apartatuan araututako txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da. Luzeen jota lau hilabeteko epean eman beharko da, isurtzei buruzko nahitaezko dokumentazioa arroko erakundearen erregistroan sartzen den egunetik hasita, edo dokumentazio hori zuzendu behar izanez gero, zuzenketa egiten denetik hasita.

Epe horrek ez du inolako aldaketarik izango informazio publikoaren izapidearen ondorioz bidaltzen den dokumentazioa dela eta».

Bi. Honela geratzen da idatzita 21. artikulua:

«21. artikulua. *Ebazpena.*

1. Ingurumen-baimen integratua emateko organo eskudunak prozedura amaituko duen ebazpena emango du sei hilabeteko epean, luzeen jota.

2. Sei hilabeteko epea igaro eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, aurkeztutako eskaera ezetsi egin dela ulertu ahalko da».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *815/2013 Errege Dekretua aldatzea (815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua onartzekoa, zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita).*

815/2013 Errege Dekretua aldatzen da (815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua onartzekoa, zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita), eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 15. artikulua 5. apartatua:

«5. Dokumentazio osoa aurkeztu ondoren, organo eskudunak:

a) Jendaurrean jarriko du hogen egunez gutxienez, eta

b) Arroko erakundeari igorriko dio, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluan aipatutako txostena egin dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean, dagokion konfederazioaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera. Txostenak, gutxienez, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua 251. eta 259. artikuluetan isurketa-baimenatarako exijitutako alderdiak jasoko ditu.

Txosten hori ez da beharrezkoa izango titularrak zero isurpen duela deklaritzen duenean, hargatik eragotzi gabe Ur Araztuak Berrerabiltzeko Araubide Juridikoa Ezartzen duen abenduaren 7ko 1620/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa».

Bi. Honela geratzen da idatzita 15. artikulua 9. apartatua:

«9. Ingurumen-baimen integratua emateko organo eskudunak prozedura amaituko duen ebazpena emango du, lau hilabeteko epean, luzeen jota. Funtsezko aldaketa onartzen duen ebazpena ingurumen-baimen integratua txertatuko da, eman zenetik izandako aldaketekin batera, testu bakarrean.

Lau hilabeteko epea igaro eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, aurkeztutako eskaera ezetsi egin dela ulertu ahalko da».

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzea.*

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 34. artikulua 2. apartatua:

«2. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 49.h) artikuluan arautzen duenari dagokionez, aurreko apartatuko a), c), d) eta e) letretako hitzarmenen indarraldia (I+G+B arloko Espainiako, Europako edo nazioarteko programa edo proiektu bati lotutako hitzarmenena) hitzarmenen klausuletan bertan finkatuko da. Hasierako indarraldia ezingo da izan bost urtetik gorakoa. Ezarritako indarraldia amaitu aurretik, sinatzaileek noiznahi hitzartu ahalko dute hura luzatzea, gehienez ere beste bost urtez.

Indarraldi mugagabea izan dezakete aurreko apartatuko b) eta f) letretako hitzarmenek, Europako ikerketako azpiegitura-partzuergoei eragiten badiete, baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente diren ikerketa-zentroak, -institutuak, -partzuergoak edo -unitateak edo azpiegitura zientifikoak sortzeko edo finantzatzeko aurreko apartatuko b) letrako hitzarmenek ere. Indarraldia kasuan kasuko ikerketa-zentro, -institutu, -partzuergo edo -unitatearen edo azpiegitura zientifikoaren iraunaldiaren arabera izango da, hau da, zer helburu zientifikotarako sortu ziren bada horiek betetzearen arabera, proiektu

zientifikoaren beharrianen araberakoa edo egin behar diren inbertsioen edo horien amortizazioaren araberakoa».

Bi. Hamaikagarren xedapen gehigarriaren izenburua eta hirugarren apartatua honela geratzen dira idatzita:

«Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Dirulaguntzak eta laguntzak*».

«3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistema finantzatzeko agente publikoaren zuzendariak emandako ebazpen baten bidez, zuzenean eman ahalko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 22.2.b) eta 28.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, ikerketa zientifiko eta teknikoko eta berrikuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzak, betiere lehiaketa-deialdi hauen ondorioz ematen badira:

a) Europar Batasunaren urte anitzeko esparru-programa egikaritzuz zenbait estatu kidek sortutako egiturek egindako deialdi publikoak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 182., 185., 186. eta 187. artikuluetan xedatutakoaren babesean, bai eta Europar Batasuneko Ikerketa eta Berrikuntzarako Esparru Programaren babesean sortutako elkarteen esparruan egiten direnak ere.

b) Ikerketa eta berrikuntzako lehiaketetarako deialdi publikoak, parekoen bidezko nazioarteko ebaluazio-estandarren arabera ebaluatutak eta Espainiak edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistema finantzatzeko agente publikoek sinatutako nazioarteko itun edo akordioetan oinarrituta sortutako egiturek kudeatutak».

Hiru. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuak unitate funtzionaltzat hartzea*.

Baldin eta xedeari dagokionez autonomoak badira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publikoei kontratuen bidez, norgehiagokaren bitartez dirulaguntzak emateko ebazpenen bidez edo beste edozein tresna juridikoren bidez agindutako ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuak unitate funtzional bereizitzat hartuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemako agente publiko horien barruan, Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 101.6 artikuluan ezarritako balio zenbatetsia kalkulatzeko».

Azken xedapenetako hamargarrena. *Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legea aldatzea*.

Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 91. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. “Ekonomia Jasangarriako Karbono Funtza” nortasun juridikorik gabeko funtza sortzen da, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzari atxikia. Helburu hauek ditu: karbono gutxiko eta klimarekiko erresilientea den jarduera ekonomikoa sortzea, berotegi-efektuko gasen isurtzeak murrizteko Espainiak bere gain hartutako helburuak betetzen laguntzea eta funtsezko sektore ekonomikoetan garapen teknologikoa sustatzea, deskarbonizazioa eta klima-erresilientzia bultzatzeko, Estatuaren eremuan egingo diren jarduketaren bidez.

2. Funtsak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Klima-aldaketaren aurkako borrokan eragin nabarmena duten jarduketa gehigarriak garatzea, klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko.

b) Berotegi-efektuko gasen isurtzeak murrizteko eta karbono-hustutegiak areagotzeko jarduketa gehigarriak garatzea, murriztutako edo xurgatutako CO₂ tona baliokidearen prezioan oinarrituta.

c) Elektrizitate-sorkuntzako sektorea edo industria-sektorea deskarbonizatzeko ahalmen handia duten garapen teknologikoko proiektu enblematikoei laguntzea.

d) Karbono-kredituak eskuratzea, bereziki Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren eta haren Parisko Akordioaren tresnen esparruan enpresek egindako edo sustatutako jardueren ondoriozkoak, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, Espainiako enpresek tresna horietan parte har dezaten sustatzeko. Funtsean lehentasunez erabiliko da energia-efizientziako, energia berriztagarrietako eta hondakinen kudeaketako proiektuetarako, bai eta horiek gauzatzen diren herrialdean teknologia-transferentzia handia dakarten proiektuetarako ere. Jardueren isurtze-murrizketen ziurtagiria egiteko, kasuan kasuko isurtzeei buruzko nazioarteko arauak hartuko dira kontuan.

Erregelamendu bidez ezarriko da zer baldintzaren arabera finantzatuko diren aurreko puntuetan adierazitako jarduketak, dirulaguntzak barne».

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Herri Lanen Emakidako Kontratuak Arazten dituen maiatzaren 23ko 13/2003 Legea aldatzea.*

Herri Lanen Emakidako Kontratuak Arazten dituen maiatzaren 23ko 13/2003 Legearen 4. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Estatuaren Administrazio Orokorrak, bere eskumenak erabiliz, txostena egingo du Estatuaren eskumenak egikaritzeari eragin diezaioketen lurralde- eta hirigintza-planak eta plan horietako xedapen orokorrak eta hirigintza-arauak onartzeko, aldatzeko edo berrikusteko prozeduren instrukzioan. Txosten horiek lotesleak izango dira Estatuaren eskumenak babesteari dagokionez, eta, hala badagokio, konponbide negoziatua bilatzeko ahaleginak egin ondoren bideratuko dira, gehienez ere hiru hilabeteko epean. Epe hori igarotakoan, aldekoak direla ulertuko da, eta onarpen-prozedura izapidetzen jarraitu ahalko da, Estatuaren titulartasuneko jabari edo zerbitzu publikoei eragiten ez badie. Nahitaezko txostena eskatu ezean, edo gaiaren arabera eskumena duen organoak desadostasuna adierazten badu, edo aipatutako isiltasun-kasuetan txostena aldekoa den presuntzioa aplikatzen ez bada, ezingo da kasuan-kasuan dagokion lurralde- edo hirigintza-plana onartu, Estatuaren eskumenei eragiten dieten gaietan.

Dena den, hirigintza- edo lurralde-gaietan eskumena duen administrazioak irizpen-elementu nahikorik ez badu, bai behar diren txostenak jaso ez direlako, bai txosten horiek jaso arren erabakitzeko nahikoak ez direlako, txostena egin behar zuen organoaren gaineratik hierarkikoki hurrena dagoen organoaren titularrari pertsonalki eskatuko dio organo eskudunari agintzeko, hamar laneguneko epean, eskabidea jasotako egunetik zenbatzen hasita, dagokion txostena entrega dezan, hamar laneguneko epean, atzerapenaren erantzuleak izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe. Egindako errekerimendua plangintza-tresnaren sustatzaile pribatuari jakinaraziko zaio, hala badagokio, eta azken horrek, halaber, txostena egiteko eskatu ahalko dio administrazio eskudunari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arazten duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 29.1 artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez».

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Erregelamendu-mailako babes-klausula.*

1. Errege lege-dekretu honen 63. eta 64. artikuluetan xedatutakoak erregelamendu-maila du.

2. Errege lege-dekretu honek azken xedapenetako zortzigarrenean aurreikusten duen aldaketa (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko

16/2002 Legea garatzeko Erregelamenduarena, zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita) erregelamendu-mailakoa da.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko abenduaren 30ean.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN